

Eibarko Hiriko

2017-2027

aldirako

**Kirolaren Plan
Estrategikoa**

**Plan Estratégico
del Deporte de
la Ciudad de
Eibar para el
periodo 2017-
2027**





AURKIBIDEA

1.	Deialdiaren ezaugarriak.	3
2.	Planaren sarrera eta atal orokorra.	6
3.	Planaren irismena.	12
4.	Egun klabeak adierazten dituen Egutegia.	15
5.	Aholkulari taldea eta bere ezaugarriak.	18
6.	Plana garatzeko ikuspuntua eta kirolaren balioak.	20
7.	Atalen sintesi ejekutiboaren txostena.	23
8.	Prozesu parte-hartzailearen laburpen deskriptiboa eta dokumentazio grafikoa	131
9.	Eibarko Hiriko Kirolaren Plan Estrategikoaren sintesi ejekutiboaren txostena.	144
10.	Eranskina: I.	163
	II.	



1. DEIALDIAREN EZAUGARRIAK

Deialdiaren iragarkia GAOn

Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala



Boletín
Oficial de
Gipuzkoa

2016ko urriaren 6a, osteguna

191

Jueves, a 6 de octubre de 2016

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA

Deialdia, ondoko administrazio-kontratu hau esleitzeko: Eibarko Hiriko 2017-2027 aldirako Kirolaren Plan Estrategikoa.

PATRINATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE EIBAR

Convocatoria para la adjudicación del contrato administrativo siguiente: Plan Estratégico del Deporte de la Ciudad de Eibar para el periodo 2017-2027.

Patronatuburuaren Ebazpena



EIBAR
Udal Kirol Patronatua
Patronato Municipal
de Deportes

PATRONATUBURUAREN EBAZPENA

KONTRATUA: Eibarko Hiriko 2017-2027 aldirako
Kiolaren Plan Estrategikoa

Eibarren, 2017ko urtarrilaren 26ean.
PATRONATUBURUAK
Izp Miguel de los Toyos Nazabal



RESOLUCIÓN DEL PRESIDENTE DEL PATRONATO

CONTRATO: Plan Estratégico del Deporte de la
Ciudad de Eibar para el periodo 2017-2027

En Eibar, a 26 de enero de 2017
EL PRESIDENTE DEL PATRONATO
Fdo.: Miguel de los Toyos Nazábal



2. PLANAREN SARRERA ETA ESPARRU OROKORRA

Sarrera honek kirolak eta bere agerpenen azken lau hamarkadetan egindako ibilbidea deskribatu nahi du eta Eibarko gizartearen testuinguruan kokatu. Denbora honetan, asko aldatu da Eibarko gizartea eta kirola ere asko aldatu da.

Aldaketa hauek, gure ustez, eragin dute Eibarko Udalak ezinbesteko iriztea hausnarketaldi irekiari; horrek ikuspegi berria ekarri behar du, eta lagunduko du udal esku-hartzeak hobeto egoki daitezen egungo gizartera, zeharkako proposamenen bidez, zeintzuk, agian, jarraibide estrategiko bihurtu daitezkeen kirolari dagozkion politika publikoek kontuan hartu beharrekoak.

Azken mendeko Eibarreko historia aztertzen badugu, azaletik bada ere, aurki ditzakegu Eibar zergatik den gaur dena azaldu dezaketen aurrekariak. Ustekabekoa da Astelena frontoia 1904tik izatea? Eta frontoi zaharra, gaur egun desagertua? Zer litzateke Eibarreko futbola Txantxa Zelairik gabe? Eta JD Arrate kiroldegi duen Untzaga plazarik gabe? Zergatik mantentzen da kirol elkarte 1924tik? Bolunburu Oroigarriak 100 urte bete ditu bere lehenengo ediziotik, 1916an.

Agian horregatik erreferentetzat hartzen da Eibarko kirola, aspalditik eta ikuspuntu askotatik. Hiria bera oso erreferente esanguratsua den moduan beste arlo batzuetan, hala nola, hezkuntzan, industrian, merkataritzan, eta abarrear: Armeria Eskola (1913an Espainiako lehenengo LHko eskola),

Unibertsitate Laborala (aitzindaria izan da estatu mailan energia berriztagarrietako Ingenieritza gradua ezartzen); Alfa, Sigma; Galerías Preciados eta El Corte Inglés; GAC, Orbea, BH eta Avelux; Lambretta; Tecniker eta Mercadona; Laurona eta Aya; Jata eta Solac... baina itzul gaitezen kirolera.

Eibarrek ez du lilurutzen bakarrik Eibar Kirol Elkarteak gaur egun bereganatu dituen lorpenengatik, mundu osoko liga-txapelketa onenean 10.postua aurten; edo beste garai batean eskubaloiko Asobal liga-txapelketan JD Arratek lortutako garaipenengatik; eztabaidatu ezin diren bi adierazgarri aipatzearren. Baizik eta, azken lau hamarkadetan, Udalak bultzatutako politika publikoei esker, kirola eibartarren eskubide bilakatu da bertakoek gauzatu ahal dutena, biztanle guztien eskura baitago. Ezta Eibarko Udal Kiroleko Patronatua 1982an sortzea ere, biztanle guztiei kirola hurbiltzeko prozesu pozgarria lideratzeko.

Egia da kirola udalkotzea ez dela Eibarko Hiriaren ezaugarri eskusiboa. Bete hainbat udal daude, Europako kirol kontzeptuaren ildoak jarraitu nahian,- 1975eko Kirola Denontzat Europar Gutunean gauzatu, izan ere, bertan kirola eskubidetzat hartzen zen-, hainbat ekintza bultzatu zutenak kirol egitea demokratizatzeko aldera, ordu-artekeo pribilegiatu batzuen aukera eskusibisten aurrean.

Europa osoan kirolaren gainean hedatzen ari ziren ideiek, udal demokratiko gazteak bultzatu zituzten kirol politika berriak formulatzera, eta beraiekin batera, bideratu zuten udal kirolaren sistemaren garapena gaur ezagutzen dugun moduan. Ideia horiek indartuta agertzen dira 1992ko Kirolaren Europako Gutunean; gutun horrek, interes handiko ekarpen ugarien artean, bere egiten du gaur egungo kirolaren gaineko kontzeptu baliadun eta onartua.

“Kirola edozein jarduera fisikoa izango da, parte hartzearen bidez, antolatua edota bestelakoa, helburu hauek izango dituena: egoera fisikoa edo psikikoa hobetzea eta adieraztea, gizarte harremanak hobetzea edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea”

Hauxe da plan estrategiko honek jasotzen duen eta gidari duen kirolaren kontzeptua. Definizio modernoa, zabala eta oso onartua Europa osoko gizartean.

Beste aurrekari batzuk bazeuden ere, Europako Gutun hauetan eta definizio honetan oinarritu, abiatu eta sakontzen da, beste inguruabar askorekin batera, kirola gizartearen betebeharrak bezala kontsideratzea osasunaren, heziketaren eta berdintasunaren ikuspuntutik, eta industria bezala, ikuspuntu ekonomikotik eta enpleguak sortzeko iturri bezala. Hau da, kirola gizartearen zeharkako politikaren ikuspuntu bezala. Esan ahal dugu, gehiegikerietan erori gabe, Eibarko Udal Kirol Patronatua printzipio horietan

oinarrituta, hasieratik erreferentzia izan dela udal kirolarentzat Gipuzkoa osoan, Euskadin eta Espainian. Bere apustua, 1979tik izan diren udal gobernu guztiena, etengabea izan da, eta hiru ardatz nagusitan oinarrituta erabaki da:

- 1) adin guztietako biztanleak kirolean abiaraztea, instalazio egokiekin eta jardueren eskaintza anitza eta kalitatezkoa ematea, irisgarria fisiko eta gizartearen aldetik.**
- 2) erabateko apustuagatik eskoletako heziketa fisikoaren alde, hiriko ikastetxe publiko zein pribatu guztietako eskola kirolaren alde, eta hainbat kirol moten hastapenetako kirol-eskolen alde, eta**
- 3) kirol federatua sendotzearen aldeko bultzada irmoagatik.**

Horretarako, aurrekontu ekonomiko egoki eta instalazio publiko paregabe bez hornitu zen hiria. Baita erakunde bat ere, Eibarko Udal Kirol Patronatua, medikuek, Heziketa Fisikoko irakasleek... osatutako plantilla izugarri zabala duena, eta ezinbesteko laguntza izan zena Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zuzendaritzen politikak garatu eta inplementatzeko

Gaur egun, eta gero eta gehiago, gurea bezalako gizarte aurreratuak, garrantzia eman diotenak kirol egiteari eta bizimodu aktiboa izateari, eskatzen diete leku administrazioei, eta udalei bereziki, kirol gehiago pertsona guztientza, kirol egiteko proposamen berriak, eskaintza zabal eta erakargarriagoak, malguagoak eta bereziagoak. Azken finean, kirol zerbitzu gehiago eta hobeak, eskuragarriagoak eta merkeagoak eskatzen ditu.

Udal kirolaren eredua, ezagutzen dugun moduan, antza ez du egokitzeko gaitasun nahikoa eskaera horiei erantzuteko. Eta bere kasuan, egingo balu gaur egun erabiltzen dituen baliabide ekonomikoak, materialak eta langileria handitu beharko lituzke. Eta ematen du hori ezin dela egin, ez epe laburrean ezta epe luzean ere.

Orain arte kirolak pertsona guztientzat lortu dituen hazkunde eta garapenak, eta hazteko aukerak, berriz, guztientzako kirolaren sektorea interesgarri bilakatu dute ekimen pribatuarentzat. Horregatik agertu dira eragile pribatuak guztientzako kirolaren sektorea inbertitzeko aukera errentagarria ikusten dutenak. Izan ere, gaur egun kirola gorantz doan behar indibiduala da.

Toki administrazioak, kontuan izanda kirola udalkotzea berezko ezaugarria dutela, guztien interesaren aitzindariak izan behar dira, eta zalantza barik ematen ari diren aldaketei erantzun behar diete. Politika publiko berriak

sustatu behar dituzte adin guztietako pertsona guztiei bizitza osorako eskaintza erakargarri eta igualitarioak egiteko. Norberaren nahi, behar, helburu eta balio desberdinei erantzun jarraiek jarduerak. Osasuna hobetu eta mantentzeko, heziketa hobetzeko, gizarteratzea aukeren berdintasuna sustatuz,..., aberastasun handiagoa eta enplegu hobe eta gehiago sortzea hiriarren irudia hobetzeko. Hori da kirol programen balio transbertsala.

Erronka handia da, eta administrazioek ezin izango diote aurre egin laguntzarik gabe arrakasta lortuko badute. Talentu guztiak, energia guztiak eta baliabide guztiak, publikoak zein pribatuak, ezinbestekoak dira eginkizun honetan.

Elkarlan publiko-pribatuaren atalan agertu ahal dira benetako aukerak hazkunde eta berrikuntzarako udal kirolaren kudeaketan, azken urteotako impase-a apurtu eta gaituzteko duena. Formula hau, aspalditik atal juridikoan dagoena eta Europar Batasunak gomendatua, bidea urratzen ari da biztanle asko duten hirietan, eta hainbeste biztanle ez duten hirietan ere bai. guztion intereserako onak diren udal proiektuak garatzea ahalbidetzen duten eraginkortasuna eta efikazia hobetzea, eta elkarlan publiko-pribatua sustatzea, dira, besteak beste, Eibarrek jasota dituen jarraibide klabeak Eibar 2025 Plan Estrategikoan. Eibarko Hiriko Kirolaren Plan Estrategikoak ezinbestean bat egin behar du Hiriaren estrategia orokorrekin.

Ezin dugu aipatu gabe utzi, emozio, mihaspen eta errespetu handiz Miguel Diego González, Kirol Patronatuko zuzendari teknikoa, zein talentu eta dedikazio handiz politika hauen aitzindari paregabea izan baitzen 30 urte baino gehiagotan; bera izan zen benetako protagonista eta erreferentziatzko eragilea udal kirol kudeatzaile askorentzat. Plan estrategiko honen erredakzio taldea osatzen dugun pertsona askok berarekin lan egiteko aukera izugarria izan genuen. Ez ginateteke gaur garena bera gabe.

Argi-ilunak, asmakizunak eta hanka-sartzeak gorabehera, Eibarko udalak, eta beste hainbat udalek, lagundu dute Eibarren eta herri osoan kirola gaur egun dena izan dadin: zalantzarik gabeko errealitatea politika publikoen agendetan eta ezinbesteko gaia pertsona askoren eguneroko bizimoduan.

ETORKIZUNARI AURRE EGITEKO HAUSNARTZEKO BEHARRA

Oro har, udal kirolaren eredia azken hamarkadetan gehienbat garatutakoa, eginkizun nagusia egoki bete du. Denbora honetan zehar lortu du, beste eragile publiko zein pribatuen (elkartek, klubak eta

enpresak) laguntzarekin, biztanle erdiak aktibatzea. Hala ere, bestelako faktoreak direla bide, azken urteotan, kirol jarduera ez da areagotzen pertsonen eta gizartearen behar duten erritmoarekin. Hauetako faktore batzuek zerikusia izan lezakete honakookin:

1. Instalazioak zaharkituta geratu dira: horietako askok dagoeneko ez diete eraginkortasunez erantzuten biztanleriaren zati handi baten eskakizunei.
2. Beraz, eskaintza ez aurrera ez atzera dago proposamen konbentzionaletan, eta askotan ez dira erakargarriak.
3. Kirolaren antolaketa eta administrazioa, oro har, motelak, zurrinak eta geldoak dira eskakizunetan ematen diren aldaketa azkarrei egoki erantzuteko.
4. Ereduaren produktibitatea, bereziki gizartean sartzeko gaitasuna, argi hobetu daiteke eta prest egon behar da datozen belaunaldietarako.

Hala ere, kostu ekonomiko operatiboa ez da gutxitzen, eta gaur eguneko udalek ikusi dute nola gutxitu diren nabarmen aurrekontuak krisia dela eta; horrek bider-ezina egiten du azpiegiturak eta egiturak handitzea, eta horren ondorioz, bere kostu operatiboak. Horregatik, eredia bera ere berrikusi eta modernizatu behar da.

Ildo beretik, ezin dugu ahaztu elkarte sare garrantzitsua dagoela kirol sisteman ezinbesteko funtzioak betetzen dituena. Eta oraindik ere toki administrazioaren babes eta laguntza behar dituela instalazio zein diru-laguntzen bidez jarraitu ahal izateko. Gauza bera esan ahal da eskola kirolari dagokionez, edo gizarte mailan sentiberak diren talde bereziei dagokienez. Alde batera utzi ezin den beste perspektiba bat da.

Kirolak, bere osotasunean, genero berdintasunaren arloan esku-hartzeko estrategia transbertsal boteretsua eta hobeezina eskaintzen du, gizarte talde bereziei laguntzeko eta integratzeko, eta euskararen erabilera eraginkorra sustatzeko ere bai.

Erreferentzia marko honetan erredaktatuko da Eibar Hiriko Kirolaren Plan Estrategikoa 2017-2027 aldirako; plan horrek biztanleek kirol gehiago egin dezaten lortzeko politika transbertsalak identifikatu nahi ditu. Hauexek dira mundu osoko gizartearen erronkak: ekidingarriak diren hainbat gaixotasun murriztu nahi dituzte, ongizate-estatua hobetu nahi dute eta osasun sistema publikoentzat jasangaitza den kostu ekonomikoa gutxitu nahi dute. Beste alde batetik, gaur egungo gizartearen kirol egiteko modua erabat aldatu da azken urteotan. Egitura lineal eta bertikala izatetik transbertsala izatera pasatu da. Lehenengoaren ezaugarriak honakoak dira: oinarrizko kirol taldeak, zaletuen sistema federatura igotzen zirenak (batzuk), batzuk goimailako errendimendura eta profesionalak izatera heltzen ziren gutxi batzuk.

Egitura transbertsalaren, konplexuagoaren, ezaugarriak honakoak dira: talde handiago eta anitzagoak, eskola umeen taldeak, helduak fitness kontzeptuan sartutako hainbat programatan, jolas eta abentura kirola, beteranoak eta masterrak euren zaletasunei eusten dietenak, etab. Gaur egun biztanle guztiak kirolariak izan behar dira, aktiboak, txiki-txikitatik 90 urte baino izan arte.

XX. mendeko erdialdetik pertsonen bizimoduen aldaketa nabaritzen ari da, batez ere hiri inguruetan, izan ere, inguru horietan ikuspuntu fisiologiko eta ebolutibo batetik moldatu gabe sentitzen gara. Aldaketa kulturala askoz azkarragoa izan da: gaur egungo bizitzeko estiloak ez du laguntzen bizimodu aktiboa izaten garapen teknologiko izugarriatik (garraiobideak, ekipo elektronikoak, ekoizteko eta elikagaiak banatzeko sistemak, etab.). Ikuspuntu honetatik, bizimodua errazagoa da. Norbanako eta gizarte mailan, berriz, ondorioak argiak dira: gutxi gorabehera herri garatuetako %70ek ez du egiten behar besteko kirolik osasuna mantentzeko eta pisua kontrolatzeko.

Ez dago zalantzarik sedentarismoaren arriskuez. Ezta bizimodu aktiboaren onurez ere, hala pertsonentzat nola gizartearentzat. **Plan honen helburu garrantzitsuena bitarteko sendoa izatea da Eibarren pertsona gehiago, aktiboago, sarriago egon daitezen** EuropeActive-ren leloak adineratzen duen bezala.

3. PLAN ESTRATEGIKOAREN IRISMENA



Gaur egun badakigu eibartarren %50ek baino zerbai gehiagok kirolen bat egiten duela, nahiz eta helburuak lortzeko gutxi eta maiztasun txikiagorekin izan. Hala ere, badakigu, horretatik, 2tik 1ek erabiltzen ditu betiko kirol instalazioak; beste erdiek kalean egiten du libre, ibilbideak, mendia,... outdoor kirola da. Kirol egiten dutenen 4tik 1 bakarrik dago federatuta, eta horietatik, %20 baino ez dira emakumeak. Dauden kirol instalazioak ezagutzen ditugu eta bere ezaugarri funtzional nagusiak, nola dauden, eta nolako aukerak eskaintzen dituzten. Eta inguruaren eta momentuaren aukerak ere ezagutzen ditugu.


Inguru konplexu honek, zeinetan batera dauden eta elkarri eragiten dioten biztanleen beharrak, instalazioenak, programenak, antolakuntzarenak, kudeaketarenak, ekonomikoak, kulturalak... eramaten gaitu hausnarketa sakona egitera Eibarko kirolaren orainaren eta etorkizunaren gainean.

Hausnarketa hau egokia eta ezinbestekoa da politika publiko moderno eta berritzaileak diseinatzeko, eta kirol ekipamenduen diseinuan eta dotazioan berrikuntzak sartzeko, baita antolakuntza egituran zein kudeaketan. Oinarrizko patrioiak berrikusi behar dira poblazio jakin batentzat kirol instalazioen beharrak zehazten dituztenak, eta, beraz, euren diseinua eta eraikuntza baliagarriak izan daitezen eta pertsona gehiago eta maizago erakarriko dituztenak. Horrela, kostu handiko politika eta ekipamendu horiek herritar guztientzat izango dira, adin guztientzat, eta kondizio guztientzat.

Plan honek, kontratazioa arautzen duten preskripzio teknikoaren pliegoarekin bat, analisia, diagnostikoa, helburua eta jarraibide estrategikoak jorratuko ditu; horrek ikertzeko 6 atal hauei eragiten diete:

1. Biztanleen beharra eta Hiriaren kirol guneak.
2. Kirola, osasuna eta hezkuntza
3. Kirol Ekitaldiak
4. Kirola eta emakumeak
5. Kirola eta euskara
6. Gizarte irisgarritasuna

Laburbilduz, hau da 2017-2027 aldirako Eibarko Hiriko Kirolaren Plan Estrategikoaren irismena. Plan bat, zeinek eskatzen dituen kirolaren 360ºko ikuspuntu eta kontzeptua.



A muscular man is performing a battle rope exercise in a gym. He is shirtless, wearing black shorts and black sneakers. He is holding a thick, grey battle rope with both hands, and the rope is coiled on the floor. The background is a dark brick wall. The lighting is dramatic, highlighting the man's muscles. A large, semi-transparent teal banner is overlaid on the image, containing the text.

4. AHOLKULARITZA TALDEA ETA BERE EZAUGARRIAK

AUTORES



Bonifacio Teruelo Ferraras
Zuzendaritza eta Koordinazioa



Iñaki Ugarteburu Artamendi
1. eta 5. atalak.
Beharraak eta Kirolguneak
Kirola eta Euskaraera



Fernando Andrés Pérez
1. atala
Beharrak eta kirolguneak



Luis V. Solar Cubillas
2. atala
Kirola, Osasuna eta
Hezkuntza



M^a Luisa Garcia Leandrez
2. atala
Kirola, Osasuna eta
Hezkuntza



Juan Aldaz Arregi
3. atala
Kirol ekitaldiak



Luis C. Natividad Andres
3. atala
Kirol ekitaldiak



M^a Jesus Monteagudo Sanchez
4. atala
Kirola eta Emakumea



Marian Izpizua Uribarri
4. atala
Kirola eta Emakumea



Xabier Leicea Ortega
6. atala
Gizarte Irisgarritasuna



Mainer Blasco Pérez
6. atala
Gizarte Irisgarritasuna



Julián Gomez Fuertes
Procesu Parte
Hartailea



Fernando Paris Roche
Metodologia eta Kalitatea




Patxi Pescador Pérez
Edizio eta Administrazioa

2017-2027 aldirako Eibarko Hiriko Kirolaren Plan Estrategikoaren erredakziorako Sport Studio enpresak prestigio handiko pertsonak bildu ditu Planaren irismena osatzen duten atal desberdinak aztertzeko eta dagozkion txostenak idazteko.

Taldea ezinbestean zabala da, talentua duena, ezagutza eskarmentua duena ikertu beharreko 6 ataletan (Biztanleen beharrak eta Hiriaren kirolguneak, Kirola, Osasuna eta Hezkuntza, Kirol Ekitaldiak, Kirola eta Emakumea, Kirola eta Euskara eta Gizarte Irisgarritasuna).

14 pertsonak osatzen dute beren beregi eta neurrira sortutako taldea deialdiaren eskakizunei ondo erantzuteko, perfil akademiko eta ibilbide profesionak ugari dituztenak:

- 8 Lizentziatu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan
- 1 Diplomatu Magisteritzako,
- 1 Arkitekto,
- 2 Soziologo,
- 1 Lizentziatu Soziologia eta Politika Zientzietan,
- 1 Lizentziatu Psikologian



- Horietatik 4 emakumeak dira, 5ek Doktorakuntza dute, 4 Eusko Jaurlaritzako edo Foru Aldundiko Kirol zuzendariak izan dira. Guztiak zuzen erlazionatuta kirol kudeaketaren atal guztiekin. Talde anitza da, kohesioa duena eta orekatua, zeinean kide batzuek gaur egungo kirola garatzen den makroentornoa ezagutzen duten, eta beste batzuek gaur egun Eibarreko Hirian kirolaren errealitatea hurbiletik ezagutzen duten. Beraz, elkartu dira, Eibarri oso lotuta dauden profesionalak (3), Gipuzkoa osoari (2), Euskadi osoari (7) eta Estatu osoari (3).
- **Talde konprometitua, eta bere talentua eta eskarmentua ekartzeko gogoarekin eibartarren jarduera fisikoak eta kirola sustatzeko plan honen erredakzioaren bidez.**

5. EGUN KLABEEN EGUTEGIA



EKPE 2017-2027 garatzeko egun klabeak eta egutegia														
urtarril a	otsaila		martxoa		apirila		maiatza		ekaina					
	1	M	HASIERA		1	M	1	S		1	L	4. TALDE-BILERA		
	2	J	1. TALDE-BILERA		2	J	2	D		2	M			
	3	V	STOKEHOLDERS ETA ITURBURUAK IDENTIFIKATZEA (ERAGILEAK, ELKARTEAK, INSTALAZIOAK, KLUBAK, ESKOLA ZENTROAK, EKITALDIAK,...)		3	V	3	L		3	M			
	4	S			4	S	4	M	4	J		4	D	
	5	D			5	D	5	M	5	V		5	L	
	6	L			6	L	6	J	6	S		6	M	
	7	M			7	M	7	V	7	D		7	M	
	8	M			8	M	8	S	8	L		8	J	
	9	J			9	J	9	D	9	M		9	V	
	10	V			10	V	10	L	10	M		10	S	PROZESU PARTE HARTZAILEA
	11	S			11	S	11	M	11	J		11	D	
	12	D			12	D	12	M	12	V		12	L	
	13	L			13	L	13	J	13	S	HASIERAKO TXOSTEAK EGITEA. 4.,5., ETA 6. EREMUAK	13	M	
	14	M			14	M	14	V	14	D		14	M	
	15	M			15	M	15	S	15	L	DIAGNOSTIKO INTEGRATUAREN TXOSTENAK IDAZTEA	15	J	
	16	J			16	J	16	D	16	M		16	V	5.TALDE-BILERA
	17	V			17	V	17	L	17	M		17	S	
	18	S	18	S	18	M	18	J		18	D			
	19	D	19	D	19	M	19	V		19	L			
	20	L	20	L	20	J	20	S		20	M			
	21	M	21	M	21	V	21	D		21	M			
	22	M	22	M	22	S	22	L		22	J			
	23	J	23	J	23	D	23	M		23	V			
	24	V	24	V	24	L	24	M		24	S	BUKAERAKO TXOTENAK EGITEA PROPOSAMEN ETA JARRAIBIDEEKIN		
	25	S	25	S	25	M	25	J		25	D			
	26	D	26	D	26	M	26	V		26	L			
	27	L	27	L	27	J	27	S	3. TALDE-BILERA	27	M			
	28	M	28	M	28	V	28	D		28	M			



6. PLANA GARATZEKO IKUSPUNTUA ETA KIROLAREN BALIOAK

Eibar Hiriko 2017-2027 aldirako Kirolaren Plan Estrategikoa erredaktatzeko Sport Studio enpresak eta erredakzioan parte hartzen duten pertsonak zerean oinarritzen dira: gaur egun, eztabaidagarria bada ere, mendebaldeko gizarte gehienek onartzen dituzten kirolaren aurreko jarrera eta abordatzea.

Ildo horretatik plan honek 1992ko Kirolaren Gutun Europarrean agertzen den kontzeptua bere egingo du, lehen aipatu bezala: “**Kirola edozein jarduera fisikoa izango da, parte hartzearen bidez, antolatua edota bestelakoa, helburu hauek izango dituena: egoera fisikoa edo psikikoa hobetzea eta adieraztea, gizarte harremanak hobetzea edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea**” Beraz, kirola ulertuko da zentzu zabalean.

Eta ikuspuntu humanista batetik, kirola ulertzen dugu pertsona eta gizartearen zerbitzuan. Eta bere programek zentzu transbertsala izan behar dute mundu osoko gizarteek dituzten arazo larriei aurre egiteko. Ikuspuntu transbertsal horretatik, ulertzen dugu, udalek oro har, eta Eibarrek bereziki, paradigma berri bat hartu behar duela Kirolarekin zerikusia duten politika publikoetarako; beste atal garrantzitsu batzuk alde batera utzi barik, kirolarekin zerikusia dute baliabide edukatibo eta pedagogiko bezala, osasuna sustatzeko estrategia bezala, eta ekonomiaren eta enpleguaren eragile bezala.



Plan estrategiko hau hamarkada baterako idatzi da. Datozen 10 urteetan arrazoituta proposatzen diren ekintzei eta gomendioei ekin beharko litzaieke. Aurrera eramanez gero, -une bakoitzeko gehiengo politikoak ondo baderitzo, behar diren moldaketekin, egokienak irizten dieten momentuetan, dagozkion eragileak liderrak izanik-, aurreikusten dugu eibartarrak orain baino askoz ere aktiboagoak izango direla.

Kirol integratua ezinbesteko baliabide ikusten dugu politika edukatibo eta kultural guztietan, eskola barruan eta eskolatik kanpo, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, gazteen eta adinekoen artekoa, bereziki minberak diren taldeak garatu eta integratzeko, euskara eta bertoko adierazpen kulturalak sustatzeko.

Kirola eragile ordezkazina ikusten dugu osasuna eta bizi kalitatea sustatzeko politika guztietan, gero eta

urte gehiago hobeto bizitzeko eta mendekotasun txikiagoarekin.

Kirola sortzen ari den eragile ikusten dugu aberastasuna eta enplegua bultzatzeko.


Udal atal guztien arteko kolaborazioa ikusten dugu alkatetza aitzindari duena, bulego transbertsal batetik.

Beste erakunde batzuekin, hala Eusko Jaurlaritzarekin, nola Foru Aldundiarekin kolaborazio leiala eta konprometitua

Bertako beste eragile batzuekin, eskola zentroekin, osasun publikoaren zentroekin, eragile empresarial eta ekonomikoekin, kirol eragileekin, sozio-kulturalekin, eta biztanleekin oro har.

Kirola Eibarren ezaugarri garrantzitsuenetakoa eta biztanleak harro izateko arrazoia izango da.

Kirolari dagokionez Eibarko Udalaren helburu nagusi hau proposatzen dugu: :



Eibartar guztiak motibatzea bizimodu aktibo eta osasungarria beregenatzera, kirola bitzta osoko laguna izanik.

7. ATALEN SINTESI TXOSTENAK

1.ATALA

**BIZTANLERIAREN KIROL
BEHARRAK ETA
BETETZEKO
INSTALAZIOAK**



BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK





1. atalaren helburua:

Atal honek, Eibarko biztanleriaren kirol beharrak ezagutzearen, dauden kirol guneak aztertzearen (publikoa, pribatua eta naturalak) eta kirol beharren eta hauek betetzeko guneen artean koherentzia gehiago lortzearen proposamenak idazteko asmoa du.

Plan honen xede eta itzaropenik nagusiena Ipuru polikiroldegiaren erreforma proposamenean eta Kontzepzio Konbentuaren lursailari onura atzeratzean oinarritzen dela jakinaren ganean gaude, baina alde honi, nahiz eta ekingo diogun, planaren lortzeko saiakeran zati bat besterik ez da.

1. ATALA: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

Eibarko biztanleria, (EUSTAT 2016): 27 mila biztanleen egonkorra den herria, ia mila emakume gehiago gizona baino; eta ia 20 urtek bi mila gazte 65 urteko helduak baino



1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

AKTIBILI PLANAREN OHARRAK, (EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN PUBLIKOA) OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEAREKIN, OME-REKIN ALIENATURIK

Ekintza motaren gomendia eta jarduera fisikoa eta kirol jardueraren praktikaren kopuru hobeezina osasunezko helburuekin

Haurrak eta gazteak (1-30 urte)

1.1. Lehenengo haurtzaroa. 1-5 urte, egunero 3 orduz aktiboak gutxienez. Eskola zentruetan psikomotrizitatea. Ur jarduerak, baldintza zehatzen igeritokia. Familia kirola. Jolasteko guneak .

1.2. Haur-adina 6-12 urte, ordu 1eko jarduera fisikoa, moderatua edo kementsua. Heziketa fisikoa. Eskola instalazioetan jolasketa dinamizatuak. Familiar kirola eta praktika askea parkeetan, skate parkeetan, frontoiak, jolasteko pisteetan. Kirol instalazio arruntetan kirola.

1.3. Nerabezaroa. 3-18 urte. Eguneroko ordu 1eko jarduera fisikoa, moderatua edo kementsua. Eskola instalazioetan heziketa fisikoa. Praktika askea parkeetan, jolasteko eta kirol pistetan, skate parkea, frontoiak, bizikletan paseoak, eta/edo patineteetan. Kirol instalazio arrunteetan kirol federatua. Ekintza gidatuak, aretoan.

2.1. 19-30 urteetako gazteak: Praktika askea, ibili, korrika egin, iger egin, pedalei eragin, patinatu. Aretan eta/edo igeritokian klase gidatuak, fitness, kirol federatua, torneo sozialak, erraketa kirolak eta /edo igeritokia, kirol instalazio arruntetan.

Pertsona helduak (30 urtetik aurrera)

Gomendio orokorra:

300 minutuko jarduera gomendatua astean. 5 egunetan bananduak. 150 minutu gutxienez, 3 egunetan bananduak. Jarduera aerobikoa moderatua edo kementsua, indartzeko lanez gain. Oinarrizko jarduera fisikoak; ibili, iger egin, pedalei eragin eta ekintza gimastikoa.

2.2. 31-45 urteko taldea: Praktika askea, ibili, korrika egin, iger egin, pedalei eragin, patinatu. Aretan eta/edo igeritokian klase gidatuak, fitness, kirol federatua, torneo sozialak, erraketa kirolak eta /edo frontoian, kirol instalazio arruntetan.

2.3. 46-64 adineko taldea

Praktika askea, ibili, korrika egin, iger egin, pedalei eragin. Aretan eta/edo igeritokian klase gidatuak, fitness, kirol federatua, torneo sozialak, erraketa kirolak eta /edo frontoian, kirol instalazio arruntetan.

2.4. Pertsona nagusiak (65 urte baino gehiago).

300 minutuko jarduera gomendatua astean. 150 minutu gutxienez. Jarduera moderatu eta kementsua aerobikoa konbinatuz. Praktika askea. Aretan eta/edo igeritokian klase gidatuak, fitness, kirol federatua, torneo sozialak, erraketa kirolak eta /edo frontoian, kirol instalazio arruntetan.

1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

GOMENDATZEN DIREN JARDUERA FISIKO ETA KIROL JARDUERAK GARATU AHAL IZATEKO GUNEAK

Jarduera	Beharrezkoa den instalazioa	Eibarren non dauden
Psikomotrizitatea	Psikomotrizitate aretoa	Eskola zentru guztietan
Haurrentzako ekintza akuatikoak	33ºtako urrezko igeritokia	Ugan klub gimnasioa
Skate parkea	Skate pista	Iparragirre kalea
Joku askea parkeetan	Adin desberdinetarako haurrentzako parkeak	Udalerrian sakabanatuak
Gune irekietan ekintzak	Adin desberdinetarako ekintza fisikoa egiteko parkeak	Udalerrian sakabanatuak
Ibiili, korrika egin	Ibiltze peatonak, hiri ibilbideak. Atletismo pista	Udalerrian sakabanatuak Unbeko Polikiroldegian
Iger egin	Igeritokia	Ipurua eta Orbeako Polikiroldegia
Pedaleei eragin, patinatu	Bide gorri, ibilbie seguruak eta ondo seinatuak	Udalerrian sakabanatuak
Klase gidatuk	Aretoak	Ipurua eta Orbeako Polikiroldegia.Gimnasio pribatuak.
Fitness	Fitness aretoa	Ipurua eta Orbeako Polikiroldegia.Gimnasio pribatuak.
Euskal Pilota	Frontoiak	Astelena, Arrate,Amaña,Altzubarren,Legarre,Sansaburu.
Erraketa Kirolak	Tenisa, padela, squash	Ipurua eta Orbeako Polikiroldegia
Eskola kirola	Polikiroldegiko pistak, igeritokiak, futbola zelaiak eta gimnasioak	Eskola zentruak eta Ipurua eta Orbeako Polikiroldegia Ipuruak Estadioa. Amaña eta Sautxiko polikiroldegi pista.
Kirol federatuak	Entrenamendu eta lehiaketarako kirol ekipamendu arrunta.	Eskola zentruak eta Ipurua eta Orbeako Polikiroldegia Ipuruak Estadioa.

1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

KIROL ERAKUNDEEN BEHARRAK (KLUBAK) ETA DAUDEN INSTALAZIOAK (1)

Kluba	Modalitatea	Instalazio zehatza behar dutenak	Eibarren instalazioa
S. D. Eibar	Futbola	Bai	Ipuruako estadioa eta eranskina-Unbeko Polikirodegia
Eibartarrak F.T.	Futbola	Bai	Unbeko Polikirodegia-Ipuruako erankina
C.D. Urki	Futbola	Bai	Unbeko Polikirodegia-Ipuruako erankina
C.D. Unbe Futbola	Futbola	Bai	Unbeko Polikirodegia
C. D. Eibar	Atletismoa	Bai	Unbeko Polikirodegia
Eibar Rugby Taldea	Rugbya	Bai	Unbeko Polikirodegia
Eibar Triatloi Taldea	Triatloia	Bai	Unbe eta Ipuruako Polikiroldegia
Eibarko Haritza Eskubaloi Taldea	Eskupilota	Bai	Ipuruako Polikiroldegia
Boloen Kantabria Etxea	Boloak	Bai	Boloen Kantabria Etxea
S.D. Asola Berri Boloak	Boloak	Bai	Arrateko Bolera
Urki Amaña Karate Kluba	Karate	Bai	CEP Amaña LHI

1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

KIROL ERAKUNDEEN BEHARRAK (KLUBAK) ETA DAUDEN INSTALAZIOAK (1) (2)

Kluba	Modalitatea	Instalazio zehatza behar dutenak	Eibarren instalazioa
A.D. Euskal Bizikleta	Txirrindularitza	Ez	
C. Ciclista Eibarrés	Txirrindularitza	Ez	
C. Gimnasia Rítmica Ipurua	Gimnasia Erritmikoa	Bai	Ipuruako polikiroldegiaren pista berdea
C. Judo Kalamua	Judo /Karate	Bai	Kalamua Gimnasioa
C. Arqueros Urko de Eibar	Arkuarekin tiroa	Bai	
Eibarko Urbat Igeriketa K.E.	Igeriketa, waterpolo	Bai	Ipurua eta Unbek Polikiroldegia
C. D. Eibar	Xakea, txirrindularitza, espelelologia, mendia, urpekoak	Ez	
C. D. Eibar	Atletismoa	Bai	Unbeko Plikiroldegia
C. D. Eibar	Pilota	Bai	Frontoia Astelena, Frontoia Ipurua
C.D KA 1173 Saskibaloia	Saskibaloia	Bai	Ipuruako polikiroldegiaren pista berdea

Gaur egun gimnasia erritmikoa, wáter polo eta saskibaloia,agian arkuarekin tiroa, dauden baino kirol instalazio zehatzago batzuen beharra daukaten ereduak dira, modu hobereanean beraien jarduera federatua garatzeko.

1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

DAUDEN KIROL GUNEEN AZTERKETA ETA BEHARREN ERABAKIA

CUADRO RESUMEN		Mediciones en m ²			COMENTARIOS
		Cálculo de Necesidades	Dotaciones Existentes	Diferencia	
1	Atletismo pistak	21.156	22.633	-	Zenbateko ona dago
2	Futbol eta Errugby zelaiak	18.640	24.075	5.435	Azaldu daitekeen zenbateko gehiegi dimentsionatua (*)
3	Aire libreko igerilekuak	637	400	-237	Gutxiagotasun sotila duen zenbatekoa
4	Igerileku Estaliak	887	637	-250	Lamina errekreatiboren urritasun sotila
5	Termak edo spa	550	230	-320	Gutxiagotasun sotila duen zenbatekoa
6	Auzoetako pabeioiak eta frontoiak	3.977	4.616	639	Zenbateko nahikoa
7	Gimnasioen aretoak (Fitness eta talde klaseak)	2.160	1.552	-608	Zenbateko eskasa eta oso zatitua. Areto espezializatuen gabezia (erritmikoa, adz)
8	Frontoi arautuak	1.280	1.728	548	Zenbateko nahikoa
9	Squash, tenis ta padel pistak	2.140	1.476	-664	Zenbateko eskasa

Iruzkina orokorra

Gomendatzen diren kirol praktiken beharrei aurre egiteko kirol Eibarreko herriak duen instalazio parkea, funtsean oso garrantzitsua da: Ipuruko polikiroldegi konplexua (Ipuruko Udal Estadioa eta Eranskina, polikiroldegia eta udal igerileua); Unbeko polikiroldegia; Orbeako kirol zentrua; Astelena Frontoi; gimnasio ed zentru pribatuak (Ugan Klub, Gim. Juanito, Gim. Kalamua, Fit Corpore (Eibar Sasoian), Ifarsport Gym y Gim. Ttatt); Eskola publiko eta pribatuen zentruen instalazioak, hiri frontoien área eta sarbide askekoak. Bestetik, gero eta erabilera gehiago duen, outdoor guneak eta naturalak: paseoak, ibilbide osasuntusak, treking bideak mendi baxu edo altuko ibilbideak, etab...Eta bereziki, Ibur Erreka presarako buelta. Segidan, instalazio funtsezkoen azterketa laburbilduko dugu eta hobetzeko proposamenak

1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

DAUDEN KIROL GUNEEN AZTERKETA ETA BEHARREN ERABAKIA

	Zentrua	Instalazioak	Balorazioa
1	C.E.I.P. AMAÑA	Estalita eta ez estalia dagoen polikiroldegi pista arautua	Nahikoa
2	C.Pr. ALDATZE	Gimnasio txikia	Eskasa
3	C.F.P. ARMERIA ESKOLA	Estalita dagen fronti estalia, saskibaloia pista estalia eta gimnasioa	.Nahikoa baina egoera txarrean
4	I.E.S. UNI EIBAR-ERMUA	.Estalita dauden bi polikiroldegi pista arautuak	Nahikoa.
5	C.E.I.P. ITURBURU	Ez estaliak dauden bi polikiroldegi eta saskibaloia pista arautuak. Frontoi stali. Gimnasio txikia	Nahikoa
6	C.Pr. LA SALLE-ISASI	Estalia dagoen polikiroldegi pista, ez estalia den saskibaloia pista eta frontoi txiki estalia	Nahikoa
7	C.Pr. LA SALLE-AZITAIN	Ez estalia den polikiroldegi pista, ez estaliak saskibaloia eta boleibol pista arautuak. Patio estalia eta frontoi txiki estalia.	Nahikoa
8	I.E.S. MOGEL-ISASI	Gimnasio eta patio estalia, ez arautua	Eskasa
9	C.E.I.P. SAN ANDRÉS	Gimnasio eta saskialoi pista estalia, ez arautua	Nahikoa
10	C.E.I.P. URKIZU	Ez arautuak diren bi pista estaliak	Eskasa
11	C.E.I.P. VIRGEN DE ARRATE	Ez estaliak dauden bi pista eta gimnasioa	Nahikoa
12	I.E.S. ZULOAGA	Gimnasioa eta pista ez estalik, ez arautuak	Eskasa

1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

KIROL BEHARREN LABURPEN OROKORRA ETA KIROL GUNEEKIN HARREMANA

Puntu indartsuak	Puntu ahulak
Biztanle gehiengoan oinarrizko kirol beharrak erlatiboki ondo asetuz daude baina herrian kirol praktika handiagoa lortu behar da.	Neska eta mutilen genero ebakia garrantzitsua da eskola kirolan eta kirol federatuan(%70-a %30-aren kontra), nahiz eta kirol partehartzailean (Patronatoa) proportzioa inbertitzen den.
Udal kirol instalazio parkea oso garrantzitsua da dimentsioan, kokapenean eta bere guneen motetan, biztanleriarekin konparatu izan daitekeena baldintza proportzionaletan, ornituago eta aurreratuagoak dauden udalerririk baino.	Kirol gune batzuen obsoleszentzia egoerak bere berritasunean, egokitzapenean eta hobetzean parte hartzea eskatzen du, Ipuruako Polikiroldegia bereziki.
Eskol zentruen konpromiso inportantea kirolaren defentsan, beste gaien artean, eskola kirolaren programa koordinatu bat.	Eskola kirolaren bertako estruktura gabezia, proiektuaren bideragarritasuna eta iraunkortasuna beratzten duena.
Eskaintza askotariko duen klubaren sare zabala dago. SD Eibarrek bertako kirol sistemarako indar handia adierazten du (eta herri guztiarentzat orokorrean) dimentsio ikaragarriak.	Patronato eta gimnasio pribatuaren artean ez dago laguntzarik, baina adostasun bat lortzen saiatu dira.
Hobetzeko edukiak	
Ekintza fisiko eta kirol praktikorako orientazio zerbitzu baten eraketa, biztanleri osorako	
Eibarrentzat aktiboagoa den txosten baten idazkera eta sinadura, bertako eragile guztien partez.	


1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

BIZTANLERIAREN JARDUERA FISIKOAREKIN LOTURIK DAGOEN GOMENDIOEN LABURPEN OROKORRA

1. Biztanleriaren jarduera fisikoaren erronka koordinatzeko Udalaren eremu erabilgarrien zeharkako politikak garatzeko.
2. Udalaren erakunde-lidertasuna indartu bertako kirolaren sistemaren beste eragileen aurrean
3. Mugimet ekimenari ekin erabakitasunez, udalerrri aktiboak, jarduera fisikorako sustapenerako bertako sarea, Eusko Jaurlaritzak sustatua.
4. Eibar herria kirol herri batean bihurtzeko hirigune eta gune naturalen dinamizazioa hobetu.
5. Herria zeharkatzen duen korredore peatonala eta ziklatua den eraketa, ekola zentruen sarbidea errazteko, interes puntuak direnak, eta Aldundi Sareekin lotu. Behar den bezala argituak, zerbitzuz ornituak, etab...
6. Ibilbide seguru bat eskaini, oinez den karrerarako behar den bezala argitua, Ipuruatik San Lorentzora.
7. Bizikleterako eta patinentzako aparkalekuak eratu kirol zentruetarako, eskola zentruetarako eta interes guneetarako.
8. Eskailera “tradizionalen” erabilera bultzatu mekanikoen eta igogailuen alboan daudenak, elementu erakargarri eta seguruetan, bere erabilerara bultzatzen dutenak: zabalera handiagoa, dieinu erakargarriagoa, mailetan mezuak erabileraren onuren Berri ematen dutenak, -udal zerbitzuetan onurak ematen dituzten konteo sistemarekin batera, adibidez-
9. Jarduera fisikoa duten parkez herria betez, gazteentzat “sreet workout” eta heldu eta adinekoentzat.
10. Dauden baliabideen dinamizazio programen martxan ipintzea, “Ibilxan” eta jarduera fisikoa, adibidez; “walk and talk”, mundura buelta, pertsonak egiten dituzten km-ak batuz, etab...

1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

Udal kirol zentru nagusien mapa



UDAL KIROL ZENTRU NAGUSIEN AZTERKETA

IPURUAKO UDAL POLIKIROLDEGIA

Puntu indartsuak

Kokaleku ikaragarria eta Konbentuarekin lursailaren tamainua handitzearen aukerekin, asmo handiko parte hartze bat aurrera eramatea posible litzateke milaka pertsona abonatu eta erabiltzaileen jarduerarekin guztiz ez etenduz.

Beregain hartzen duen kirol programa zabala. Patronatuaren urteroko erabileraren %45-a ematen du.

Egituraren onuraren aukera, etxaurreak, azalaren egitura esterea, etab...itxuraz egoera onean

Herrian pabeloi handi polibalente bat izaten jarraituz erreforma integralaren aurreikusitako kostea onartuz.

Puntu ahulak

Erabiltzaileen, kirolarien eta ikus-entzuleen zirkulazioak. Eraikuntzaren sarbide orokorra. Autobabesa Plana.

Gimnasio eta aretoak, igerilekuak, aldagelak eta beste kirolguneak eta tokiak (harrera-leku, osasun zentrua, kafetegia, aretoa, ...)

Udal igerilekuak, bere kokapenagatik, polikiroldegi osoaren sarbide independente eta bikoitza behar du.

Proiektuaren koste osoa eta garrantzitsua eta fase desberdinetan eta urtero aurrera eramateko beharra

Hobetzeko edukiak

Segurtasuna, sarbidea eta zirkulazioak, eta Polikiroldegia eraikuntzaren irudi orokorra. Kirol guneak, gaur egungo eskaerei egokitu behar dira eta gaur egun eskatzen den funtzionaltasunera. Kanpo paisaia naturalari zabalguneko handiagoak eta bere kokapenaren hiri ingurua.

UDAL KIROL ZENTRU NAGUSIEN AZTERKETA

UNBEKO UDAL POLIKIROLDEGIA

Puntu indartsuak

Nahiz eta kokalekua bitxia izan, 133.337 m2ko azalerarekin bistak ikaragarriak dira eta airea osasuntsua, futbol basearen, errugbi eta atletismoaren beharrak asetzen lagundu du.

Oso ondo kontserbatua dago eta ez du kudeaketa arazorik planteatzen, eta Patronatoak eskaintzen duen zerbitzuen %18-a ematen du.

Patronatuaren jokalaria neska eta mutil guztien abonatu baldintzak nahitaez ezartzeko aukera eman zuen.

Puntu ahulak

Tenisa eta padel bi pisten diru-kopurua konponbide eskasa da eta kirol hauen gaur egungo eskariek programa beteago bat eskatzen dute.

Hobetzeko edukiak

Ekimen pribatu edo publiko baten bat sustatu beharko litzateke- pribatua padel klub bat eratzeko ahal izanez gero erabiltzen ez den pabeloi industrial bat, zentru erakargarri bat eratzeko pista kopuru esanguratsu batzuekin (8 behintzat), Euskadiko beste udalerrri batzuetan orokortzen ari den estiloaz.

UDAL KIROL ZENTRU NAGUSIEN AZTERKETA

ORBEAKO UDAL POLIKIROLDEGIA

Puntu indartsuak

Zentruaren egoera eta itxura primerakoa da eta instalazio modernuak dauzka eta gaurko beharrei oso ondo egokituak daude.

Erabili diren materialak eta kalitateak oso zuzenak dira, mantenimendua eta eraikuntzaren zaintzea errazten dutenak, eta honen ondorioz, zuzenak dira.

Aurrekoa funtsezkoa da daukan erabiltzaileen asistentzia handia azaltzeko, Patronatuaren kirol zerbitzu totalaren %29-a, alegia

Puntu ahulak

Bakarrik igerilekuaren edalontziaren sakontasuna goraipatzea (180 cm) kudeaketa orekatu bat izateko gehiegizkoa litzateke, Water Poloaren jarraitzaileen desioak asetu nahian egina.

Seinalatuenez, Water Poloaren eskakizunei erantzuna emateko ez du balio modu egokian eta modu hertsian, eta ez du programa akuatikoko barietate bat errazten, ezta modernua, ezta erakargarri ezta interes gehiago duena ere.

Hobetzeko edukiak

Seinalatzeko esanguratsu ez den ezer ere, beharrezkoa denean, askoz jota, aipatu den edalontziaren sakontasuna zuzentzen saiatu 120-135 cm-tara, Water Poloaren eskakizunak nola konpondu erabakitzen denean.

UDAL KIROL ZENTRU NAGUSIEN AZTERKETA

ASTELENA FRONTOIA

Puntu indartsuak

Eibarren erdialdearen egoera esku pilotarako ikaragarri ona da. Bere kapazitatea 1.217 eserlekukoa da eta bere dimentsioa 41x11 m-takoa: pilotaren katedrala omen da.

Herriaren itxurarako oso egokia da eta Eibar herriari zentralitasuna ematen dio udalerrri kapitalaren bokazioan.

Jabetasun pribatuarena, 1904.urtekoa da, Eibarreko Udalak eskuratua eta Patronatuan erantsia, honek bere funtzionamendua eta kontserbazio egoera bermatzen du

Puntu ahulak

Frontoi guztietan eragina duen esku pilota munduan publiko orokorarren asistentziaren pixkanakako murrizketa bat antzematea dirudi

Hobetzeko edukiak

Seinalatzeko esanguratsu ez den ezer ere-

1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

UDAL KIROL ZENTRU NAGUSIEN AZTERKETA

IPURUAKO KIROL HERRIA (57.732 m²)



1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

IPURUAKO KIROL HERRIA

UDAL IGERITOKIA:

Udal igeritokia errazionalitateaz aztertu behar da. Eta nahiz eta herritarrek asko atsegin, kostaldeko udalerrietan ere bada, garrantzia eman behar diogu urtero 3 hilabetez bere zerbitzuak eskaintzen duelako, eta horien artean eguraldi ona bakarrik egiten duenean eta eskaintza handiko ordu oso zehatzetan.

Bestetik, zerbitzu honen gehituriko balorea (nagusiki errekreazioa ea aisialdia txapuzoi batzuk eta eguzkia hartzearen bitartez) bere balorazioa iritzia izatekoa izan arren, oraingo kirolaren balorean ia esanahirik ez du, balioen lorpenean oso fokotua dago eta osasunaren prebentzioan eta hobetzean.

Bere kasuan, eta solarium-erako azalera handitzean arrazoizko ezinezkotasan materiala izanez, jolaserako gero eta aproposagoa izatea planteatu daiteke elementu ludikoak eta interaktiboak har litezke txirrista, ur-jausi, zorrotada, puztuak,....



1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

IPURUAKO KIROL HERRIA

IPURUAKO UDAL ESTADIOA:

1947.ean Ipuruako zelaia ireki zen. Gaur egun jolasteko zelaiak 103x65 m-tako neurriak ditu, egokitzat hartzen diren 105x68 m baino gutxiagoak. Egia da, alboak oso murriztuak direla, fondoetan ia 2 m askoz jota du, eta 2,5 eta 1,8 alboetan.

Edukieraren gaia:

2014.ean kluba Lehenengora igo zenean, LFP-ak 15.000 eserleku gutxienez eskatzen zuen. Ipuruako Udal Estadioak 7.083 eserlekuetarako tokia du, Santander Ligako txikiena izanik 2016/17; Leganeseke Butarque-k jarraiturik 10.954ekin, Iruñako El Sadar 18.761ekin eta Gasteizeko Mendizorroza 19.840 eserlekuekin.

Gaia gairiditutzat ematen dugu, bere fundamentu nagusi barik arautegi bat harago(*), Eibarren oso zaila izango litzatekeelako toki gutxi dagoelako, eta oso gomendagarria ez da, pertsonen flujo arazoengatik, eta trafikoa eta autoen aparkalekuengatik eskatzen den aforo gehiegikeri honekin.

SD Eibar SAD-ek Futbola Hiria eraikitzearen asmoari dagokionez, barneko gai bat dela deritzogu, eta kasu honetan Udalak posible zaion guztian bermatu beharko luke.

(*) Behar den aforo minimo baten arrazoia klubak bezain kaudimen finantzieroa ziurtatzeko izan ohi da. Hau guztiz desfasatua geratu omen da LPF-aren klubuen ingresuen gaur egungo estrukturararen bidez, SD Eibar SDA, Lehenengo Kluba bezain solbentea ez ezik, solbenteena delako.



1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

IPURUAKO KIROL HERRIA

IPURUAKO POLIKIRODEGIA:

Bere instalazio eta kirol guneak ia guztiak desordenaturik, zaharkituak eta gutxi erakargarriak dira, eta honen ondorioz, bere eskaintza desadostasunean dago XXI.mendeko gizarte eibartarraren eskaintza eta eskakizun orokorrekin.

Osotasunean erreformatu beharra dago, eta hau jokaerarik konplexuena da. Ekonomikoki baita ere, baina batez ere oraingo zerbitzuen prestazioen jarraitasuna aurrera eraman behar delako, hilabete asko obrak dela eta zerbitzuak gelditzeak ikaragarriko mina egingo lukeelako abonatuak diren 9 mila pertsoneri eta izena eman duten beste milaka pertsoneri ere (erabiltzaile publiko) eta orokorrean, mugimendu gutxikoaren kontrako borrokan.

Konbentuaren partzelan kirol zentru bat handitzean pentsatu behar da, oraingo polikiroldegiarekin loturik dagoena, zentralizatuak dauden sarbide zuzen baten antolamenduari, aldagelekin eta kirol guneekin eta laguntzaileekin programaren hutsuneak gaitzetzeko beharrezkoak diren diru-kopuruarekin, batez ere kirolaren pertsona guztientzat herritar guztientzat.

Pabeloi nagusia bere kokalekuan mantentzea saiatu behar da-aukera kosteagatik batez ere-, baina nahitaez bere segurtasuna hobetuz eta funtzionaltasuna, nahiz eta edukieraren ahalmenaren zati bati uko egin behar zaion.

Igerileku klimatizatuari dagokionez, bere kokalekua eta sarbidea dela eta, bere espazioaren aukerak eta bere instalazio teknikoaren mantentzearen egoera orokorra bere bizitza baliagarritik gertu dagonlez, gune akuatiko berri bat eraikitzen denean desmontatzean pentsatu behar da nahiz eta geratzen den konplexu berdinean ezinbestean izan behar den, sartzeko erraza izan dadin, zabala, modernua eta erakargarria. Ipuruako Polikiroldegiaren emaitza erreformatua denean, ekipamendu guztiz sartzeko erraza dena eta segurua, nahikoa, modernoa eta erakargarria, Eibar herriaren beharrak eta desioak asetzeko gai dena, baina batez ere, kirol erakundeak (klubak) hurrengo hamarkadetarako.



1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

IPURUAKO KIROL HERRIA

KONTZEPZIO KONBENTUAREN PARTZELA:

Aipatu izan denez, Eibar 2017-2027 kirol Estrategikodun Planaren talde erredektorearen iritziz, Ipuruako Polikiroldegiaren alboan dagoen lursailaren existentziak polikiroldegiaren erreforma osoa eta handiagotzea aurrera eramateko aukera ona dela jarduera eten barik.

8.500 m²ko partzela bat da, 2009.etik erabiltzen ez dena, SD Eibarrek desiatua ere bai, uneren baten, Ipuruako Estadioaren alboan dagoen futbol zelaiarekin batera, futbolera zuzendua izateko.

Gure ustez, futbol zaleen behar nagusiak Unben eta Ipuruan dauden dotazioekin ondo konponduak daudela. Gogo hauei erreparatzeko interesa orokorrarako aukera konponduzina litzateke. Nahiz eta Plan honen helburua ez izan SD Eibarren entrenamendu zelaietako behar zehatzei erreparatzea heburua ez izan, kategoria handiengan erakunde bezala, futbola hiria eraikitzearen ideia konpartitzen badugu, seinalatzen den lursailetan, SAD-en kirol egoera, soziala eta ekonomiko-finantziario ederra aprobetxatuz.

Hala ere, gune akuatikoaren, gimnasio aretoen, -fitness eta eskaera altuko clase kolektiboak-aldagelak eta dependentziak-harrera-lekua, bulegoak osasun zentrua, aula, kafetegia, garajea, etab.-guzti hauen premiarik nagusienak aurrera eramatea lehentasuna deritzogu.

Eta nahiz eta bere ordenazio funtzional logikorako eta polikiroldegiaren oraingo eraikinarekin loturarako ikerketa sakonago bat behar den arren, lursail honetan eraikin berri bat eraiki behar dela uste dugu (edo eraikin multzoa) igerileku klimatizatu batzuk dauzkatenak, 700 m²ko fitness areto nagusi bat eta beste hiru edo lau areto (aerobic bezalako talde klaseak, yoga, pilates, spinn bike, zumba,...) 800 m²ko azalera totalarekin, harrera leku eta abegi hall- zabala eta erakargarria; aldagelak eta komuna gehiago, ordenatuak, funtzionalak eta modernuak egungo gizartearen ekintza nagusien beharrak asetzeko, emakumeenganako, talde sensiblerenganako eta adinenganako arreta bereziarekin. Konpondu beharko lirateke, kasuz kasu, aparkaleku beharrak.



1. atala: BIZTANLERIAREN KIROL BEHARRAK ETA BETETZEKO INSTALAZIOAK

INSTALAZIO ETA UDAL KIROLGUNEEN ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

- Planu orokorra batetik. Informazio kanalak hobetu eta komunikazioa desgaitasuna daukaten pertsonengan eta veste sare sozialari, dagoen eskaintzari buruz kirola praktika egokitu eta inklusiboan. Komunitateari informatzea eta sentsibilizatzea orokorrean, eta desgaitasuna daukaten pertsonen ere kirola praktikatzearen eskubideari buruz edo inguru komunitario baten jarduera fisikoa, desgaitasuna daukaten beste pertsonekin (talde zehatza) edo desgaitasunik gabeko pertsonekin (inklusioa).

Desgaitasuna duen biztanleria

EKINTZA ARDATZA II

HELBURUARI BURUZ

2.- Kirol instalazioen sarbidea eta erabilera eta diseinua bermatu

- Sarbidea eta diseinuari buruzko dokumentazio teknikoa egin kirol instalazio osorako. Hau da, kirol instalazioen sarbidearen Legeen betetzea ziurtatu titularitate publikoa daukaten instalazioetan eta bere erabilgarritasuna egiaztatu. Arauen ezarpena ziurtatzea izango litzateke, sarbidea erraztuz, behar den kasuetan, hesi arkitektonikoak ezabatuz, desgaitasuna daukaten pertsonen autonomia osoa lortzeko eta paraleloki “diseinu unibertsalaren” kontzeptua jarraitu, mugikortasun edo komunikazio zailtasuna duen, denborala edo behin betikoa izanda, edozein komunitateko partaideari sarbidea erraztuz.
- Egokitutako materiala eta laguntza teknikoak erraztu
- Desgaitasuna daukaten pertsonentzat udalerrian garraioaren flota handitu, era honetan, bere falta edo kosteak oztupoa izan ez dadin kirol instalazioetarako (Unbeko polikiroldegiaren lineari arreta berezia)



Desgaitasuna duen biztanleria

NEURRIEN LEHENTASUNEZKO ZERRENDA

- Desgaitasuna daukaten pertsoneri arreta **modu inklusiboan udal kirolaren eskaintzan**. Udalerrriaren Ondasun sozialaren Sailarekin elkarlana eta Gaituz Sport Fundazioa Kirola Egokituaren Euskal Federazioa
 - *Egokituak dauden eta inklusiboak diren jarduera fisikoen Programa*
 - *Aholkularitza zerbitzua eta balorazio funtzionala*
 - *Laguntzarako kirol monitore zerbitzua*
 - *Aldagelan autonomia izateko laguntza monitore zerbitzua*
 - *Kirol eskaintza orokorrean lehentasuna daukaten partaideen kupoen ezarpena*

Eskola Kirola Plan baten gauzapena udalerrian, desgaitasuna daukaten gazteentzat espezializatuak dauden eragileekin (Gipuzkoako Kirola Egokituaren Federazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, desgaitasunaren elkartearen sarea, Eibarreko Berritzegune)

- **Jarduera Fisikoa Egokituaren** eta Inklusiozko formakuntza Plana laguntzaileentzat (jarduerak eta instalazioak)
- Kirol instalazioen sarbide gidaren gauzaketa (hesi arkitektonikoen ezabaketa ta komunikazioan)
- Udalerrriaren Jarduera Fisikoaren sentsibilizazioa, informazio eta animazio kanpainetako dibertsitate sozialaren inklusioa
- Udalerrriaren kirol klub arruntei diru-laguntzak sustatu desgaitasuna daukaten kirolariak dauzkatenak eta inklusiboa den kirola Aurrera eramaten dutenak.
- Desgaitasuna daukaten kirolariek parte hartzen dituzten kirol ospakizunetarako diru-laguntzak sustatu, inklusioko partaidetzari lehentasuna emanez.



8. PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN LABURPENA

Planean aurrekusitako Prozesu Partehartzailea bi ekintza ildo z osaturik dago.

a) “Barneko” prozesua bi talde konkretuei zuzendua:

- Komunikabide idatzien, web eta audioetakoan kirolan adituak diren bertoko kazetariak osaturiko taldea.
- Kirola eremuarekin lotura duten edo ez duten “erreferente lokalen” pertsonak osaturiko taldea.

b) “Kanpoko” prozesua eta irekia bertako kirol sistemarekin loturiko pertsonari zuzendua (klubak, kirol erakundeak, elkarte, kirol programen erabiltzaileak, etab..) eta deialdi irekira joango diren pertsona interesatuak.

Kazetariei aurkezpena



Portalean aurkezpena



Parte hartzera gonbidatzen duen kartela

Eibarko Hiriko 2017-2027 aldirako Kirolaren Plan Estrategikoa

Plan Estratégico del Deporte de la Ciudad de Eibar para el periodo 2017-2027




Sport Studio enterpresak eta taldeko Plana Eibar media profesionalari zuzenduta, behin behineko proposamenak aurkezteko eta partaidetza prozesuaren saioan parte hartzera gonbidatzen zaituzte.

La empresa Sport Studio y el equipo de redactores del Plan, le invitan a usted como profesional de los medios de comunicación de Eibar, a la presentación de las propuestas provisionales y a participar en la jornada del proceso participativo.

Lekua: Portalea
Eguna: maiatzaren 23an
Hordua: 12,00ean
(bi ordu gehienez)

Lugar: Portalea
Dia: 23 de mayo
Hora: 12,00 horas
Duración aprox. 2 h.

Oharra: Mesedez, baieztapena: mayores@sportstudio.es Informazio gehiago tel 669782382 (Julian Gomez) / Se ruega confirmación de asistencia en mayores@sportstudio.es o en Telf. 669782382 (Julian Gómez)



Eibarko Hiriko 2017-2027 aldirako Kirolaren Plan Estrategikoa Plan Estratégico del Deporte de la Ciudad de Eibar para el periodo 2017-2027

Lekua: Portalea
Eguna: ekainaren 5ean
Ordua: 19:00ean
(bi ordu gehienez)

Lugar: Portalea
Dia: 5 de junio
Hora: 19:00
(máximo de 2 horas)

Zure iritzia garrantzitsua da!

Partaidetza prozesuan parte hartu zaitzez!

Tu opinión es importante!

Participa!

Oharra: Mesedez, baieztapena: mayores@sportstudio.es Informazio gehiago tel 669782382 (Julian Gomez) / Se ruega confirmación de asistencia en mayores@sportstudio.es o en Telf. 669782382 (Julian Gómez)

Bileren lekua eta dataak:

1. Kazetariekin, maiatzaren 24an 12:00etan Portalea kurtso aretoan

Planaren hizlariak: María Jesús Monteagudo, Luis Solar, Iñaki Ugarteburu, Patxi Pescador, Boni Teruelo y Julián Gómez.

Iraupena: 80 minutu

Partehartzaileak: 7 kazetari

4 idatzizko baliabideak

web 1

2. Erreferentziatzko pertsonak, maiatzaren 24^a 18:30etan Portalea kurtsoen aretoan.

Planaren Hizlariak: Luis Solar, Iñaki Ugarteburu, Patxi Pescador, Boni Teruelo y Julián Gómez.

Iraupena: 2 ordu

Partaideak: hezkuntzarekin, kirol kudeaketarekin, kudeaketa industrialarekin, kudeaketa turistikoa eta kudeaketa sozialarekin harremana daukaten 21 pertsona.

3. Prozesu irekiko pertsonekin, ekainaren 5-a 19:0etan Portalea areto Nagusian.

Planaren hizlariak: María Luisa Garcia, Iñaki Ugarteburu, Patxi Pescador, Boni Teruelo y Julián Gómez.

Iraupena: 2:30 ordu

Partaideak: bertoko kirol 7 klubekin loturik dauden 16 pertsona eta gimnasio pribatu bat.

Agradecimiento a los participantes

Eibarko Hiriko 2017-2027 Aldirako Kirolaren Plan Estrategikoa

Plan Estratégico del Deporte de la Ciudad de Eibar para el periodo 2017-2027

Bere ideietatik eta 2017 aldirako |periodorako – 2017tarako. Eibar-en Kirolaren Plan Estrategikorako. Bere proposamenetatik, bere kolaboratzailetatik eskerrik asko Zu bezala batean parte izan duten beste pertsona askorekin edo prozesuko beste modu batekin, bereak erredakzio-taldeetatik | ekipamenduetatik ikasi dira, eta, behin ordenatuak eraberritu direnez gero eta Prozedo Partzipatibo-aren Txostenean sartu dira. Haiek guztiak oro har aberasten dute, era adierazgarrian Plana. Gainera, era ordenatu eta laburrean sartu dira, 'prozesu parte-hartzaileko jasotako proposamen dekalogo' tituluaren azpian atal batean, Planaren Sintesi Betearazlean.

Orain aurrera, Planeko behin betiko erredakzioa egingo da eta Eibar-eko Udalaren | Udaletxearen Kirol Patronatura datorren uztaila bukatu baino lehen emango da.

Eskerrik asko eta agur bero bat.

2017ko ekainaren 28ra, Bilbo
Planeko talde | ekipamendu idazlea
SPORT STUDIO

Muchas gracias por su colaboración, por sus ideas y sus propuestas al Plan Estratégico del Deporte de Eibar para el periodo 2017 – 2017.

Las suyas, con las de otras muchas personas que como usted han participado de una u otra manera en el proceso, se han estudiado por el equipo de redacción, y, una vez ordenadas se han refundido y se han incluido en el Informe del Prozedo Partzipatibo. Todas ellas en conjunto enriquecen, de manera significativa el Plan.

Además, de una forma ordenada y resumida se han incluido en la Síntesis Ejecutiva del Plan, en un apartado bajo el título '*decalogo de propuestas recogidas en el proceso participativo*'.

A partir de ahora, se hará la redacción definitiva del Plan y se entregará al Patronato de Deportes del Ayuntamiento de Eibar antes de finalizar el próximo mes de julio.

Muchísimas gracias y un cordial saludo,

Bilbao, a 28 de junio de 2017
El equipo redactor del Plan
SPORT STUDIO

Komunikabidei gonbidapenen erlazioa

Marka Irratia: Borja Rodríguez

COPE: Oscar Imedio

Diario Vasco: Letizia Gómez

El Correo: Letizia Gómez

Gara: Amaia U. Lasagabaster

Diario Marca: Ander Barroso

Diario Vasco: Jose A. Rementeria

Diario Vasco: Alberto Echaluze

Diario As: Mikel Baena

Diario Vasco (foto): Felix Morquecho

Noticias de Gipuzkoa: Javi León

Kirol prentsaren Dekanoa: Mateo Gilabert

Eta Kitto.

IkustenTV: Fran Murillo

Eibarreko sistema sozialean eta kirol sisteman
pertsona erreferenteei gonbidapenen erlazioa

Inma Urkiola.Irakasle

Almudena Urizar.Irakasle

Alfredo Cobo.Irakasle

Manu Agirre. Irakasle, kirolaren enpresariak

Esteban Vouilloz.Kirolaren teknikoa.

Josetxo Varela.Kirolaren teknikoa.

Eneko Garcia. Kirolaren teknikoa.Enpesarioa.

Mikel Larrañaga. SDEibarreko Zuzendariordea

Ana Rodríguez. Kirolaren zinegotzi ohia

Juan Angel Balbas. DEBEGESA gerentea

Ramón Tellería. Aparejadorea

Iñaki Osoro.Docente. CDEibarreko Zuzendaria

Javi Alkoba. Empresarioa

Javi Zulueta. Empresarioa

Xepe Gallastegi. Entrenadorea

Patxi Mutiloa. EJaren kirolaren zuzendari ohia

Jose Luis Tellería. BFAko Kultura eta Kirola diputatu ohia

Maria Gallastegi. Soraluzeko Kirola Zerbitzuaren Zuzendaria

Leire Barriuso. GEOPARKEko zuzendaria

Jose Iriarte. DebabarrenaFS enpresarioa eta zuzendaria

Jose M^a Ulzia. Kontsultorea. AAERmeria

Julián Eraso. Euskal Bizikletaren zuzendaria

Javi Riaño. Euskal Bizikleta zuzendaria

Aitor Elorza. OJMAREN zuzendari komertziala

Olalla Gallastegi. ASPE


Alejandro Bengoa. IKA4-Tekniker-ren Zuzendari orokorra.

Klubei eta beste erakundei gonbidapenen zerrenda

A.D. Euskal Bizikleta
Eibarres Txirrindularitza Kluba
C. Ipuria Gimnasia erritmikoa
Judo Club Kalamua
C. Arkerokak Urko Eibar
Eibarko Urvat Igeriketa K.E.
C.D. Eibar
S.A.D. Eibar
C.D. KA1173 Saskibaloia
Eibar Eskubaloia
C.D. Urki
C.D. Eibartarrak
C.D. Debabarrena FS
C.Eibar Triatloi Taldea

C. Kantabria Etxea
Asola Berri. Bolatoki K.E.
Gimnasioa Fit Corpore
Ifarsport Gym
Gimnasioa Juanito
Gimnasioa Kalamua
Ugan Kluba
Gimnasioa Ttatt
Eibarreko Merkatarien
Elkartea
Eibarreko Hosteleria Elkarte

Ekarpenak jaso dira bide hauetatik:



PROZESU PARTEHARTZAILEAN JASOTAK PROPOSAMENEN DEKALOGOA

1. Plan estrategikoaren eta bere ekintza eremuaren garapenerako mahaia bat sortu
2. Liderazgo gehiago, koordinazioa eta Patronatoaren koordinazioa eta sostengu teknikoa herriaren kirol eragilei, klubekin bereziki, baina eskola kirolarekin ere bai, osasunaren bulego komarkala, industriak, ...kirolaren zinegotziak,...
3. Ipuruako polikiroldegian kirolaren gune osagarrien hornidura hobetzeko, bereziki materialerako biltegiak, klubentzako bulegoen lokalak, bilera aretoak,...telekomunikaziozko sistema on eta modernoekin.
4. Kirol Etxe baten kirol klubentzako bulegoen zentralizazioa
5. Udal kirol instalazioetara kotxez heltzeko bidearen seinalizazio hobea, Unbera heltzeko.
6. SD EIBAR-ek kirola orokorrean eta eskubaloia bereziki, berjaurtitzeko asmo handiko proiektuaren buru izateko eta babesteko sustatzea
7. Herrian Euskal Dantza kirol politketan eta kirol eremuan sartzea
8. Orbeako polikiroldegiaren SPA-rako sarrera diru-kopurua jeistea.
9. Berrikuntza polo bat sortu eta kirolaren eremuan garapen teknologikoa.
10. Pich and Putt herri zelai baten eraikuntzaren aukera sustatu (Pares 3) Deba Behean bokazio komarkalarekin, (Azitain Poligonoan aukera moduan), Igor Vazquez-en proposamena.

9. SINTESI EJEKUTBOAREN TXOSTENA



PLANAREN ERREDAKZIOAREN SARRERA ETA JUSITIFIKAZIOA



Azken lau hamarkadetan benetako iraultza ezagutu du kirolak gure gizartean. Hiritarren eskubide indibidual bezala ikustetik norbanakoaren beharra eta gizarte eskakizuna bezala ikustera pasatu da.

Eibarko Udakl Kirol Patronatua, 1982an sortu zena, aitzindaria izan da kirola eibartar guztiei hurbiltzeko prozesuan. Izan da eta oraindik bada eibartarrentzat kirol zerbitzuak sustatzeko eta emateko eragile nagusia. Hala ere, bere ikuspuntuak, Eibarko Udalarenak oro har, berrikusi behar direa errealitate berrira hobeto egokitu daitezten.

Kirola tratatzean emandako aldaketa sakon horiek Eibarko Udalari pentsarazi diote ezinbestekoa dela 2017-2027 aldirako Kirolaren Plan Estrategikoa erredaktatzea. Hausnartzeko prozesu zabala, zeharkako proposamenak diseinatzen lagunduko duena, Udalaren esku hartzeak koherenteagoak eta eraginkorragoak izan daitezten, eta gaur egungo gizarteak dituen beharren asetasun maila kirolari dagokionez.

Kirolaren kontzeptu zabala geure egiten dugu, 360^oko ikuspegia. **“Kirola edozein jarduera fisikoa izango da, parte hartzearen bidez, antolatua edota bestelakoa, helburu hauek izango dituena: egoera fisikoa edo psikikoa hobetzea eta adieraztea, gizarte harremanak hobetzea edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea”**. Hauxe da plan honek bere egiten duen kirolaren kontzeptua, eta plan estrategiko honen erredakzioa gidatuko duena. Definizio modernoa, zabala eta oso onartua Europako gizarte osoan.

PLANAREN ERREDAKZIOAREN SARRERA ETA JUSITIFIKAZIOA



Ikuspuntu horretatik, eibartar gehienek uste dute euren kirol sistema egokitu eta berritu behar dela, izan ere

- 1) Instalazio garrantzitsuenak zaharkituak geratu dira,
- 2) Eskaintza konbentzionala da eta erakargarritasun eskasa du
- 3) Eta kirolaren administrazioak modernizazio eta berrikuntza behar du. Hiritarrek, adierazpen bide batzuetatik, eskatzen diote udalari pertsona guztientzako kirol gehiago, jarduera modernoago eta erakargarriagoak, malguagoak eta espezifikagoak.

Eskatzen du, azken finean, kirol zerbitzu gehiago eta hobeak, irisgarriagoak eta merkeagoak.

Uste dugu politika publikoak aurrena izan behar direla, guztion interesa kontuan hartuta, erronka hauek pertsona guztiei berdintasuneko eskaintza egiten, adin guztietarako eta bizitza osorako. Osasuna hobetu eta mantentzeko, hezkuntza hobetzeko, gizarteratzea sustatzeko, aukeren berdintasuna bultzatzeko,..., aberastasuna sustatzeko eta enplegu gehiago eta hobeak sortzeko, hiriaren marka irudia. Kirol programen zeharkako balorea lideratu behar du udalak eragile pribatuekin batera, zeharkako politikak aurrera eramateko herritarrek kirol gehiago egin dezaten sustatuko duena. Hauxe da mundu osoko gizarteen erronka.

Arriskuak sedentarismoan dautza eta onurak, pertsona zein gizartearentzat, bizimodu aktiboan eta osasungarrian hiri eta natura inguruetan, eta kirol gune eta instalazio espezifikoetan.

Eibarko Hiriko 2017-2027 aldirako Kirolaren Plan Estrategiakoa erredaktatzeko, Sport Studio enpresa, eta erredakzioan parte hartzen duten pertsonak definituta dagoen kirolaren ikuspegi eta jarreran oinarritu dira; eztabaidagarria bada ere, mendebaldeko gizarteek gehien onartzen duten kontzeptua da.

Ikuspegi europar eta humanista da, gizartearen eta pertsonaren zerbitzura pentsatuta dagoena. Eta bere programek izan ahal eta behar dute zeharkako zentzua mundu osoko gizarteek dituzten arazo garrantzitsuenei aurre egiteko.

Plan estrategiko hau hamarkada bati begira erredaktatu da. Datozen 10 urteetan ekin beharko litzaieke, guztiei ez bada, arrazoituz aurkezten diren ekintza eta gomendio batzuei. Aurrera eramanez gero, -une bakoitzeko gehiengo politikoak ondo baderitzo, behar diren moldaketekin, egokienak irizten dieten momentuetan, dagozkion eragileak liderrak izanik-, aurreikusten dugu eibartarrak orain baino askoz ere aktiboagoak izango direla.

Zeharkako ikuspegi batetik, eta uste dugu udalek oro har, eta Eibarkoak bereziki, administrazioen arteko koordinazioarekin eta lidergo eraginkorarekin, bere egin behar dutela paradigma Berri bat kirolari dagozkion politika publikoak aurrera eramateko; beste ikuspegi garrantzitsu batzuk baztertu gabe, **kirola baliabide edukatibo eta pedagogiko ikusten dutela, osasuna sustatzeko estrategia, eta ekonomia eta enplegurako eragile:**

- Kirol integratua ezinbesteko baliabide ikusten dugu politika edukatibo eta kultural guztietan, eskola barruan eta eskolatik kanpo, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, gazteen eta adinekoen artekoa, bereziki minberak diren taldeak garatu eta integratzeko, euskara eta bertoko adierazpen kulturalak sustatzeko.
- Kirola eragile ordezkazina ikusten dugu osasuna eta bizi kalitatea sustatzeko politika guztietan, gero eta urte gehiago hobeto bizitzeko eta mendekotasun txikiagoarekin.
- Kirola sortzen ari den eragile ikusten dugu aberastasuna eta enplegua bultzatzeko.

Udal esparru guztien arteko kolaborazioa ikusten dugu alkatetza aitzindari duena, bulego transbertsal batetik.

Beste erakunde batzuekin, hala Eusko Jaurlaritzarekin, nola Foru Aldundiarekin kolaborazio leiala eta konprometitu, ... Bertako beste eragile batzuekin, eskola zentroekin, osasun publikoaren zentroekin, eragile enpresarial eta ekonomikoekin, kirol eragileekin, sozio-kulturalekin, eta biztanleekin oro har, ...

Plan hau profesionalak eta konprometituak diren pertsona taldea osatzen dutenek idatzi dute, euren talentua eta eskarmentua ekartzeko prest daudenez eibartarrek kirol jarduerak egin ditzaten sustatzeko. Planean sartzen diren proposamenen bokazioa honakoa da: **Eibarren gero eta pertsona gehiago aktiboagoak eta sarriago izan daitezen.**

Kirola Eibarren ezaugarri garrantzitsuenetakoa eta biztanleak harro izateko arrazoiak izango da.


Kirolari dagokionez Eibarko Udalerako honako helburua proposatzen dugu:

Ebartar guztiak motibatzea bizimodu aktibo eta osasungarria har dezaten kirola bizikide eginez.



EIBARKO BIZTANLERIA			Gizonak	Emakumeak
0-20	4.846	17,70%	48,44%	51,56%
20-65	15.815	57,76%		
65- ...	6.719	24,54%		

Eibarko biztanleriaren bilakaera, egonkorra azken urteotan, 10.000 biztanle gutxitu da 1982an Patronatua sortu zenetik, 27.000 biztanle baino apur bat gehiago izan arte. Datozen 10-20 urteetan biztanleria egonkorra izango bada ere, zahartzea oso altua izango da. Azpimarratu behar da 65 urtetik gorako biztanle gehiago dagoela (6719, %24,54) 20 urtetik beherakoak baino (4846, %17,70). 20 eta 65 urte bitartean 15.815 biztanle daude, hau da, %57,76. 20 urte inguruan, biztanle gutxi daude. Konparatiboki biztanleria zaharkitua dugu eta 15 urte barru, %40k 65 urte baino gehiago izango du.



Eibar	Eskola kirola	Kimuak, infantilak eta kadeteak	Aukeren ehunekoa 1	Kirol federatua	17 eta 39 urte bitarteko biztanleak	Aukeren ehunekoa 2	Guztientzako kirola	Biztanleak	Biztanleen ehunekoa 3
Mujeres	316	996	31´72 %	599	4.126	14´5 %	4.029	14.054	28´6 %
Hombres	563	995	56´6 %	1.401	4.261	32´8 %	4.633	13.104	35´3 %
Totales	879	1.991	44´1 %	2.000	8.387	23´8 %	8.662	27.158	31´8 %
GUZTIRA (879 ESKOLA-UMEAK + 2.000 FEDERATU + 8662 ABONATU + 1000 GIMNASIO PRIBATUETAN -estimatu-							11.541 PERTSONA (biztanle guztien %42,49)		

Jakin badakigu pertsona esparru bitan edo gehiagotan egon daitekeela aldi berean. Era berean, ezin ditugu alde batera utzi kirol jarduera era autonomoan egiten dutenak inon izenik eman Gabe (korrikalariak, txirrindulariak, ibiltariak, mendi zaleak,...). Horregatik uste dugu kopurua guztira adierazitakotik hurbil egon daitekeela. Erronka geratzen den %58 hori aktibatzea litzateke.

Oharrak

- 1 Eskola kirolean Kimu, infantil eta kadeteen ehunekoa (995 mutil eta 996 neska, hau da, 1.991)
- 2 Kirol federatuen ehunekoa ateratzen da 17-39 urte bitartekoa biztanleen artean (4.261 gizon eta 4.126 emakume. Guztira 8.387)
- 3 Guztientzako kirolean Patronatuaren afiliazioari erreparatzen zaio, biztanle guztien kopuruarekin konparatzen dugu (13.104 gizon eta 14.054 emakume. Guztira 27.158)

Plan estrategikoak 6 helburu proposatzen du datorren hamarkadan lortu beharrekoak

- 1. HELBURUA:** ematea kirolari Eibarko Hiriak zehaztuta dituen helburu estrategikoak lortzeko izan ahal duen garrantzia. Ikustea kirola baliabide edukatibo eta pedagogiko bezala, osasuna sustatzeko estrategia bezala, eta aberastasuna eta enplegua sortzeko eragile bezala, 2025erako Eibarko Plan Estrategikoak ezarrita duenarekin bat.. Kirola Eibarko Hiriaren berezko ezaugarri bezala.
- 2. HELBURUA:** kirola egiten duten pertsonen kopurua handitzea, batez ere kirol egiteko arazoak dituzten sektoreei eraginez: kirol gehiago guztientzat, gero eta jende aktiboagoa eta sarriago.
- 3. HELBURUA:** kirolaren zeharkako baloreak sustatzea (osasuna, heziketa, ekonomia, berrikuntza, ingurumena, hiriaren irudia, etab.) Promover los valores transversales del deporte (salud, educación, economía, innovación, medioambiente, imagen de ciudad, etc.), alianza bat osatuz ikastetxeekin, klubekin, kirolelkarte eta federazioekin, ekitaldien sustatzaileekin, gimnasio pribatuekin, hiriko industriarekin, eta abarrekin.
- 4. HELBURUA:** udal kirolaren antolatze egitura birplanteatzea bere lidergoa sendotzeko (Patronatua, Zinegotzitza), modernizatu eta kirol eta gizarte garapenarekin eraginkor eta koherenteagoa egitea.
- 5. HELBURUA:** Ipurua kiroldegia berritzea eta handitzea, hiritarren eskaerak kontuan hartuz eta hiri eta natura gunek kirol egiteko lekuak izan daitezen erraztu. Hiria bera ulertzea kirol gune bezala.
- 6. HELBURUA:** bertako kirola sistema osatzen duten eragile guztiak trebatu antolakuntza prozesuak hobetzeko, eta progamak, jarduerak eta ekitaldiak kudeatzeko; horrela ekin ahalko zaie zeharkako ikuspuntu horretatik.

1.- KIROL GUNE ETA INSTALAZIOAK

LABURPEN KOADROA		Neurketak m ²			IRUZKINAK
		Beharren kalkulua	Dauden instalazioak	Aldea	
1	Atletismo pistak	21.156	22.693	1.537	Kopuru egokia dago
2	Futbol eta Errugbi zelaiak	18.640	24.075	5.435	Kopuru egokia dago
3	Kanpoko igerilekuak	637	440	-197	Behar baino apur bat gutxiago
4	Barruko igerilekuak	887	637	-250	Behar baino apur bat aisialdirako lamina gutxiago
5	Termak edo spa	550	230	-320	Behar baino apur bat gutxiago
6	Pabilioiak eta auzoko aretoak	3.977	3.816	-161	Nahiko
7	Gimansia aretoak	2.160	1.552	-608	Gutxi eta zatikatuta. Fitness eta beren beregiko aretoak falta dira (adib. Erritmikoa)
8	Estalitako eta arauzko frontoiak	1.280	1.728	448	Nahiko
9	Estalitako tenis eta padel pistak	5.274	4.690	-584	Gutxiegi

1.- KIROL GUNE ETA INSTALAZIOAK

Konbentzionalak diren kirol instalazioen parkea nahikoa da eta ondo dimentsionatuta dago oraingo eta etorkizun hurbileko biztanleen beharrak asetzeko. Hori bai, analisi kualitatiboari dagokionez:

<p>Futbol zelaiei dagokienez</p>	<p>Eibarrek eta Eibarko Kirol elkarteak dituzten ezaugarri bereziak kontuan izanda, uste dugu udalak bultzatutako futbol zelaien kopurua nahikoa dela, eta nekez eskatu ahalko litzaioke esfortzu handiagorik. Hori bai, denok dakigu Eibarrek kirol hiri bat eraikitzeke asmoa duela bere behar espezifikoetarako, hala lehen taldearentzat, nola behe mailentzat. Ipurua futbol zelaiari dagokionez, oso egoki irizten diogu ia bukatuta dagoen harmailak modernizatzeko politikari, baina oraingo kapazitatearen handitze adierazgarria ez da lehentasunezko gaia izan behar, kontuan izanda klub finantzen egoera, eta Eibar eta bere lurraldeko inguruabar sozial eta urbanoak.</p>
<p>Ipurua eta Orbeako ur-berodun igerilekuei dagokienez</p>	<p>Birformulatu behar dira hobeto erantzuteko biztanle taldeen gaur egungo beharrei. Oso interesgarria litzateke igerileku berri bat eraikitzea ontzi programa osatuago eta modernoago batekin, ezaugarri eta biztanle kopuru antzekoak dituzten beste udalerrri batzuetakoak bezalakoak.</p>
<p>Kiroldegiei dagokienez</p>	<p>Azalerari dagokionez nahikoak badira ere, Ipuruako Kiroldegiak, Nagusia denak, ekimen integralak behar ditu ahalik eta azkarren ikusleen irisgarritasun eta segurtasuna bermatzeko; halaber, guneak eta zirkulazioak hobeto ordenatuta egon behar dira. Eta gainontzekoek –Unibertsitate Laboraleko bi aretoek, batez ere- erreforma eta hobekuntza esanguratsuak behar dituzte.</p>
<p>Fitness eta taldekako jarduera aretoak</p>	<p>Helduen eta adinekoen artean gero eta onarpen handiagoa dute jarduera hauek; areto eta horiek hornitzeko behar handia dago; halaber, gune auxiliarrak (aldagelak bereziki), ordenazio, dimentsio eta erakargarritasunari dagokienez.</p>
<p>Padel eta tenis pistak</p>	<p>Edozein ikuspuntutatik gaur egun gutxi daude, komenigarria litzateke arazo hau behar bezala konponduko lukeen ekimen pribatu, edo publiko-pribaturen bat sustatzea. Hauxe litzateke modu bideragarriena Bizkaiko eta estatu osoko udalerrri askotan.</p>
<p>Natura eta hiri guneak</p>	<p>Natura guneak erabiltzea sustatu behar da bertara sartzeko eta hurbiltzeko ibilbideen kalitate eta segurtasuna hobetuz. Hiria, oro har, birplanteatu behar da kirol gune integratzaile bezala ulertzeko, non oinezkoak lehentasuna izango baitu eta plazak, kaleak, etab. erabiltzea errazagoa izango baita jarduera gune bezala.</p>

1.- INSTALAZIOAK BERRITZEKO ETA HANDITZEKO LANEI EKITEKO ORIENTZAIO ETA IRIZPIDE TEKNIKOAK

1. Konbentuaren partzela ezinbestekoa da. Udala saiatu behar da lortzen erabateko eskuragarritasuna Ipurua Polikiroldegiko berritze eta handitze lanei ekiteko; hori lortu behar du ekiditeko **kirol jardueren zerbitzuak etetea**, bestela honako kolektiboak kaltetuko lirateke: hainbat eskolako ume, federatu, Patronatuaren Eibar Kirol Txartela duten 9.000 inguru biztanle, eta jardueretan izen emandako beste 1.400 pertsona
2. Partzela biek **aukera paregabea** eskaintzen dute oinezkoen pasabide baten bidez elkarrekin lotzeko (behar diren laguntza4. mekanikoekin) Santa Iñes Kalea eta Elgetarako errepidearen goiko partea lotuko lituzkeena. Ardatz honek balioko luke, gainera, sakontasun planoan eta kotan posizio ezin hobea5. lortzeko, horrela berrantolatuko lirateke sarbide guztiak (gehienak bai, gutxienez) erdigune batetik. Bi partzelen arteko zeharkako komunikazioa, sarrera kontrol bakarra erraztuz, puntu neuralgiko horretatik izan beharko litzateke.
3. Ondoan dagoen Partzelan ekipamendu bat eraiki liteke

guztientzako kirolari begirako beharren programarekin, zehaztasun handirik gabe honelakoxea izan litekeena: harrerako hall zentralizatu bat, aldagelak eta komunak abonatuentzat, urberodun igerileku berriak, behar diren fitness areto guztiak (nagusia eta taldekako saioetakoa), zentro medikua, gela, bulegoak, garajeak, instalazio teknikoetarako lokalak eta biltegiak, agian, kafetegia, etab. Hori guztia gaur egun dagoen kirol zerbitzua eten egin gabe.

Udalak planteatu behar du epe laburrera, ondo baderitzo, **aurreproiektu bat erredaktatzea** (edo exekuzio proiektua) puntu honekin zerikusia duen guztia zehatz-mehatz garatuko duena.

Obra berriaren fasea behin bukatuta ekin ahalko litzaiokie **eraikinen (teilatuta eta fatxadak) eta eraikin zaharreko oraingo kirol guneen erreformari** aurretiaz derrigorrezko proiektu teknikoa erredaktatu ondoren; horrela, erantzun emango litzaiokie eskola kirolaren, kirol federatuaren eta konpetizio kirolaren beharrei: era berean, erantzungo litzaiokie hiriak dituen maila guztietako beharrei, eraikin moderno eta berrituetan.

2.- KIROL PROGRAMAK

Eibarko hiriak kirola bizi du futboleko orainaldi apartarekin eta eskubaloiko tradizio handiarekin. Eskola kirola anitza eta sendoa du (850 kirolari) eta Kirolaren Udal Patronatua, zerbitzua ematen diena eibartar askori (ia 9.000 pertsona izen emanda eta 1.400 jarduera eta programetan alta emanda) koste ekonomiko dezentearekin (udal baliabideen %2,54). Eta beste 1.000 pertsona gutxi gorabehera gimnasio pribatuetan. Kanpoan egiten den kirola, zenbatzen zaila dena, badirudi esanguratsua dela hori ere (Ibur Erreka, Arrate,...). 17 klub guztira eta 20 kirol modalitate baino gehiago 2.000 kirolari federatuei zerbitzua ematen diena. Eibar, beraz, kirol hiritzat hartu daiteke. Proposamenak:

Komunitatearen Osasunerako Kirolaren Foroa sortzea.	Udaleko Gizarte Zerbitzuen, Eibarko Osasun Bulegoaren, OSiren (Osakidetza) ordezkari baten eta Kirolaren Udal Patronatuaren partaidetzarekin; azken hau izan beharko litzateke foroaren aitzindaria.
Helduentzako kirol programa eta edukien berrikuspena.	Justifikatuak, arrazoituak eta ezagutzera eman behar dira. Ikasleek jakin behar dute zein den ikastaro eta jarduera bakoitzaren zergatia (pedagogia egin behar da).
Kirolaren orientazio zerbitzua	Patronatuak orientazio zerbitzu bat sortu ahal du honako helburuarekin: zeintzuk diren jarduera egokienak adin bakoitzerako eta sasoi bakoitzerako galdetzen duena bideratzea.
Adinekoentzako kirol programa eta edukien berrikuspena.	Osagai askoko programak garatzea: guztiek izan behar dute indar-lana, erresistentzia aerobikoa eta malgutasuna sarkopeniari aurre egiteko,
Bide osasungarrien sarea	Patronatutik sortzea, Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Zerbitzuekin batera, eguneroko programazioa xenda eta ibilbide osasungarriena, batez ere, Adinekoei begira.
Eskola Kirolaren Udal Mahaia sortzea	Eskola Kirolaren programa berrikustea, GFArekin, gurasoen elkarte, Kirol Patronatu eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Zerbitzuekin batera, nesken parte hartzearen ehunekoa mutilenaren ehunetik hurbil egon dadin.

3.- KIROL EKITALDI ETA GERTAKIZUNAK.

Eibarko Hiriak definituak ditu garapen ardatz estrategiko batzuk 2015ari begira. Sustatu beharreko ekitaldiek, beraz, erraztu behar dituzte habitat eta ingurumena, ekonomia eta merkataritza, teknologia eta berrikuntza, lurraldeko hiriburutza, kultura inklusiboa eta biztanleen parte hartzea, eibartarra izatearen harrotasuna, gardentasuna eta tokiko gobernantza. Horretarako, proposatzen da:

<p>Ekitaldien berri emateko metodoak hobetzea, euren inpaktua neurtzeko ikerketa berezien bidez</p>	<p>Ekitaldien inpaktuaren balorazio ahalik eta objektibo eta zehatzenak egitea proposatzen da. Dagoen informazioarekin ezin da kirol gertakizun eta ekitaldien eragin sozio-ekonomikoaren balorazio objektiborik egin, ezta esanguratsuenena ere.</p>
<p>Ekitaldiak egiteko ematen diren diru-laguntzak arautzen dituen normatiba hobetzea.</p>	<p>Egokia litzateke ekitaldiak egiteko laguntza eskatu ahal izateko araudiren bat bultzatzea, hiriaren printzipio eta helburu estrategikoetan oinarrituta.</p>
<p>Hiriaren estrategia orokorrarekin bat egiten duten ekitaldiak laguntzea.</p>	<p>Bereziki laguntzea helburu horiekin bat egiten duten ekitaldiak: berrikuntza teknologikoa, elkartasuna, gizarteratzea, berdintasuna sustatzen dituztenak, eta merkataritzan eta lurraldeko hiriburutzan eragin positiboa dutenak...</p>
<p>Ondo zehaztutako antolakuntzaren memoria bat eskatzea.</p>	<p>Eskatzea, a posteriori, memoria bat honakoak ondo zehazten dituenak: antolakuntzaren deskripzio argia, lortu behar ziren helburuak, lortutako eragin sozio-ekonomikoak, diru-sarrera eta likidatutako gastuen aurrekontua eta horren guztiaren justifikazio zorrotz eta gardena.</p>
<p>Parte hartze popularra duten ekitaldiak sustatzea, eta beste bat, emakumearen ikusgarritasuna sustatuko duena.</p>	<p>Parte hartze popularra duten ekitaldiak sustatzea biztanleriaren sektore desberdinei begira; klubek antolatua Patronatuaren laguntzarekin (Herri Kirola, familia giroko kirola,...) Ekitaldi bat sortzea emakumea erabateko protagonista izango duena.</p>

4.- EMAKUMEA KIROLEAN

Emakumeen %60k ez du inolako kirol jarduera osasungarriak egiten (gizonen %50); %67k baino ez du bere osasunaren gaineko balorazio positiboa (gizonen %75)- Genero berdintasuna sustatzea ezinbesteko erronka da administrazioaren maila guztientzat, eta kirola berdintasuna sustatzeko indar handiko eragilea da, izan ere, honako baloreak transmititzen ditu: esfortzua, superazioa, pertenezia sentimenduak, gizarte harremanak sendotzen ditu,... Emakumeen artean sustatzearen bidez, horien parte hartzea bilatzen da kirolaren esparru guztietan; era berean, trebetasunak eskura jarri nahi zaizkie, gizarte, ekonomia eta profesional mailetan euren integrazioa erraztuko dutena. Murriztu behar da bidegabea den genero aldea, eta horretarako zera proposatzen dugu:

<p>Kirol instalazioak hobetzea genero ikuspuntutik</p>	<p>Kirol gune eta instalazioen maskulinizazioari aurre egin emakumeek kirol egin dezaten ahalbidetzen duten ekipamenduekin (makina espezifikoak gimnasioetan, etab.) Aldagela eta gune egokiak izatea emakumeentzat eta euren beharrentzat, baita familiaren aisialdirako ere.</p>
<p>Eskola Kirola</p>	<p>Neskentzat erakargarriak diren modalitateak sartzea eskaintzan. Kirol neutroak egitea sustatzea parte hartze mistua erraztuko dutenak, neska eta mutilen parte hartzea indartuko duten kirol txapalketak antolatzea, eta kirol guneen okupazio igualitarioa sustatzea. (patioak, plazak, eba.). Genero estereotipoak ezabatzea.</p>
<p>Kirol Federatua</p>	<p>Emakumeen presentzia bultzatzea kirolaren arlo guztietan (kirolariak, direktiboak, kudeatzaileak, entrenatzaileak, bolondresak, Eibarko eta lurraldeko komunikabideak), eta (Eibarko kirolaren talde tekniko eta direktiboetan emakumeen presentziaren zifrak jakitea aldi behin eta era sistematikoan. Emakumeek kirolari uztea murriztu behar da eta bermatu Kirol Federatuan jarraituko dutela, batez ere, eskola garaian ondo hartzen ziren modalitateetan.</p>
<p>Guztientzako kirola</p>	<p>17-19 urte bitarteko nesKentzat programa erakargarriak sortzea Patronatuaren kirol eskaintzan. 20-39 urte bitarteko emakumeentzat dagoen kirol eskaintza hobetzea, egun dauden oztopoak gaindituko dituztenak: ordutegiak, haurtzaindegiak, guraso eta seme-alaben arteko kirol jarduerak, ludotekak, etab. Emakumen elkartzeko sarea indartzea, udalerriko emakumeen arteko gizarte harremanen eta lotura afektiboan bidez. Eremu publikoaren berdintasunezko okupazioa sustatzea, inguru atsegin, seguru eta irisgarrien bidez.</p>

5.- EUSKARA ETA KIROLA

Monitoreek, entrenatzaileek, eta, nola ez, neska-mutilek euskaraz badakite ere (%80 eta %100 hurrenez hurren) erabilera normalean asko dago hobetzeko. Gainera, Patronatuaren ikasle batzuek (bereak eta azpi kontratatuak) ikasi beharko lukete euskaraz saioak eman ahal izateko. Bukatu beharko litzateke infantil eta gazte gehien erakartzen dituzten klubetan dagoen gaztelaniaz hitz egiteko ohiturarekin; gauza bera egin beharko litzateke Eibarko gimnasio pribatuetan.

Semaforoaren sistematika bultzatzea

Bermatu behar da era sistematikoa euskararen erabilera eta jarraipen sakona egin.

Perfil linguistikoak lortzeko laguntzen jarraitu behar da.

Perfil linguistikoak egiaztatzea eskatu behar zaie Patronatuak antolatutako jarduerak emateko kontratatutako enpresei, eta bere langileek lor dezaten lagundu behar da.

Euskararen erabilera saritzea

Kirol atalak emandako diru-laguntzen bidez, sustatzea euskara eguneroko jardueran ohiko hizkuntza bezala erabiltzen duten klubak.

Euskararen aldeko konpromezua berritzea erakunde pribatuetan.

Euskararen erabilera sustatzeko hitzarmenak sinatzea kirol klubekin eta gimnasio pribatuekin.

6.- GIZARTERATZEA ETA KIROLA

Oztoporik gabeko kirola lortzeko, kirol inklusiboa, non pertsona guztiak egon daitezkeen, alde batera utzita norberaren ezaugarriak, zailtasunak eta gizarte baldintzak, non guztiek parte hartzeko eskubide berbera izango duten, gizarte kohesioa erraztuz, non aniztasuna Eibarrentzat errealitate aberasgarri bezala ikusten den, langabezian dauden 2.250 pertsonen, desgaitasunen bat duten 1.949 pertsonen, 2.051 etorkinen eta DSBE jasotzen duten 852 pertsonen gizarteratzea sustatuko duten ekimenak aurrera eraman behar ditugu.

<p>Langabezian dauden pertsonen alde</p>	<p>Patronatuaren Tasetan diskriminazio positiboa badago ere, ematen du ez dela nahikoa. %10,5ek baino ez du EKTa. Beste estrategia batzuekin konbinatu beharko litzateke biztanleen ratioaren parean jartzeko, hiru aldiz handiagoa.</p>
<p>Desgaitasunen bat duten pertsonen alde</p>	<p>Patronatuan 9 pertsona daude, eta egokitutako igeriketan, 13; hau da, guztira 22 pertsona, ia 2.000 pertsona duen kolektibo batetik.</p> <p>Irisgarritasun araudia betetzea instalazio berrietan edo erreformatan.</p> <p>Eskola Kirolerako plan inklusibo bat egitea, Eibar eta Gipuzkoako eragileen laguntzarekin.</p> <p>Laguntzaileen trebakuntza hobetzea, informazio eta komunikazio bideak dagoen eskaintzari buruz, eta desgaitasunen bat duten pertsonen egokitutako eskaintza handitzea:</p> <p>Aukerak aztertu beharko lirateke errazteko "hurbiltasun sozial eta fisikoko kirola".</p> <p>Egokitutako materiala lortzea eta laguntza tekniko eta ekonomikoak ematea ikuspuntu inklusiboa duten ekimenetarako.</p> <p>Egokitutako ibilgailuen parkea handitzea trasladoa errazteko, bereziki Unbera.</p>
<p>Etorkinak integratzeko</p>	<p>Etorkinen kolektibo garrantzitsuenak Magreb eta Hego Amerikakoak dira; horrek aukera ematen dio Patronatuari jasotzeko sustapen bereziei ekiteko.</p>
<p>DSBE jasotzen dutenei begira.</p>	<p>466 gizon eta 386 emakume, hau da, guztira 852 pertsonak jasotzen dute Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta. Kolektibo horrentzat Patronatuan ez badago tratu berezirik edo beren beregiko preziorik, egia da langabezian dauden pertsonentzako tasa murriztua aplikatzen zaiela (asko, suposatzen dugu, bi taldeetan daude)</p>

7. PROZESU PARTE HARTZAILEAREN LABURPENA

Prozesu parte hartzailea planaren erredakzio prozesuan ezinbesteko zatia izan da.

Diagnostiko orokorra eta atal bakoitzeko egiteko informazio biltzeko fasean, non sartzen baita bere irismena, ia kirol entitate guztiakin hitz egin da, atal batzuetako udal teknikariek, Eibarko gizartearen pertsona erreferenteekin, eta abarrekin.

Planaren lehenengo aurrerapena alkateari eta kirol teknikariari aurkeztu zitzaion; 2017ko maiatzaren 23an udal talde politikoen bozeramaileei, prentsa idatzi, irrati eta bertoko telebistei eta Eibarko gizartearen pertsona erreferente batzuei; bi aurkezpenak Eibarko udaletxean bertan eta Portalean egin ziren. Egun horretan eskegi zen Udalaren, Patronatuaren, eta Sport Studio enpresa esleipedunaren web orrietan; bertan ekainaren 24ra arteko epe bat ezartzen zen dauden bideetatik iradokizun eta proposamenak egiteko.

Ekainaren 5ean Planaren aurrerapenaren aurkezpen publikoa egin zen Portalean, biztanle guztientzat, aurretik kartelen eta beste bide batzuen bidez egindako deialdiaz.

Hurren orrian laburtuta agertzen diren proposamenak jaso dira.



7.- PROZESU PARTE HARTZAILEAN JASOTAKO PROPOSAMENEN DEKALOGOA

1. Mahai bat sortzea Plan Estrategikoaren eta bere eragiteko esparruen garapen eta inplementaziorako.
2. Patronatuaren lidergo, koordinazio eta laguntza tekniko eta adminstratibo handiagoa hiriko kirol eragileei, klubei bereziki, baina eskola kirola, lurraldeko osasun bulego, industreei ere bai,... Kirol zinegotzitza,...
3. Ipurua Polikiroldegian kirolaren osagarriak diren gune gehiago ematea, batez ere materiala gordetzeko biltegiak, klubetareko bulegoak, bilera gelak,... komunikabide on eta modernoekin.
4. Kluben bulegoak Kirol Etxean zentralizatzea.
5. Udaleko kirol instalazioetara ibilgailuz heltzeko seinalizazio hobea, bereziki Unbera.
6. Eibar Kirol Elkarteak kirola orokorrean, eta eskubaloia batez ere, bultza dezan sustatzea,.
7. Euskal Dantzak sartzea hiriaren kirol politika eta esparruetan.
8. Orbeako Polikiroldegiko SPArako sarreraren prezioa jaistea.
9. Sortzea kirolaren esparruan berrikuntza eta garapen teknologikoaren puntu bat.
10. Pich and Putt (3ko pare) landa zelai bat eraikitzeko aukera sustatzea, Deba Behe osorakoa izango litzatekeena, (Azitain Poligonoa aukera moduan), Igor Vazquezen proposamena.



10. ERANSKINA I.



Eibarko Hiriko 2017-2027 aldirako Kirolaren Plan Estrategikoa

Recomendación del Consejo de Europa de 26 de noviembre de 2013 sobre la promoción de la actividad física beneficiosa para la salud en distintos sectores (2013/C 354/01) http://www.csd.gob.es/csd/estaticos/dep-salud/Recomendaciones_promocion_actividad_fisica.pdf

Directrices de actividad física de la UE. Actuaciones recomendadas para apoyar la actividad física que promueve la salud. Bruselas, 10 de octubre de 2008. Grupo de trabajo de la UE "Health & Sport". http://ec.europa.eu/assets/eac/sport/library/policy_documents/eu-physical-activity-guidelines-2008_es.pdf

Anuario de estadísticas deportivas 2017. Consejo Superior de Deportes. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Mayo 2017. http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/dms/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/deporte/anuario-deporte/Anuario_de_Estadisticas_Deportivas_2017.pdf

Estrategia de promoción de la salud y prevención en el SNS. (En el marco del abordaje de la cronicidad en el SNS) Estrategia aprobada por el Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud el 18 de diciembre de 2013. Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad. <https://www.msssi.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/estrategiaPromocionyPrevencion.htm>

Plan Integral para la Actividad Física y el Deporte (Plan A+D) 2010 - 2020. Consejo Superior de Deportes. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. <http://www.csd.gob.es/csd/sociedad/plan-integral-para-la-actividad-fisica-y-el-deporte-plan-a-d/>

Plan Aktibili. Marco para la acción. Gobierno Vasco. http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/aktibili_01/es_aktibili/adjuntos/marco_accion_1_0.pdf

Plan Aktibili. Estrategias y proyectos para la promoción de la actividad Física. Gobierno Vasco. http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/aktibili_01/es_aktibili/adjuntos/Estrategias_proyectos_promoci%C3%B3n_actividad_fisica.pdf

Estadísticas sanitarias mundiales. OMS 2014. http://apps.who.int/iris/bitstream/10665/131953/1/9789240692695_spa.pdf

Carta europea del deporte, Rodas 1992. http://www.bizkaia.eus/Kultura/kirolak/pdf/ca_cartaeuropeadeporte.pdf?idioma=CA

Declaración de Berlín sobre la educación Física y el deporte, 2013 <http://unesdoc.unesco.org/images/0022/002211/221114s.pdf>

Carta internacional revisada de la educación física, la actividad física y el deporte, UNESCO, 2015. http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL_ID=13150&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

Eibarko Hiriko 2017-2027 aldirako Kirolaren Plan Estrategikoa

Libro Blanco del deporte en Europa, 2007.
[http://fundacionuscdeportiva.org/fileadmin/arquivos/pdfs_non_publicos/Libro Blanco sobre el deporte.pdf](http://fundacionuscdeportiva.org/fileadmin/arquivos/pdfs_non_publicos/Libro_Blanco_sobre_el_deporte.pdf)

Eurobarómetro sobre el deporte en Europa, Comisión Europea, 2014.
http://europa.eu/rapid/press-release_IP-14-300_es.htm

El deporte municipal en España: la revisión del modelo, 2013.
<http://www.fagde.org/archivos/El-deporte-municipal-en-Espa%C3%B1a-la-revisi%C3%B3n-del-modelo.pdf>

Observatorio del deporte municipal en Euskadi, 2015
<http://www.kait-kirola.org/wp-content/uploads/2016/04/OBSERVATORIO-DEPORTE-MUNICIPAL-EUSKADI.pdf>

Censo nacional de Instalaciones Deportivas, 2010.
<http://www.csd.gob.es/csd/instalaciones/politicas-publicas-de-ordenacion/consulta-del-censo-de-instalaciones-deportivas-2010/>

Plan estratégico de Eibar 2015 – 2015.
<http://www.eibar.eus/es/ayuntamiento/objetivos-y-proyectos/plan-estrategico-de-eibar-2025>

IV Plan de igualdad del Ayuntamiento de Eibar, 2016 – 2019
<http://www.eibar.eus/es/ayuntamiento/areas/servicios-sociales-1/igualdad/IVPlanIgualdad.pdf>

Plan estratégico del Euskera Ayuntamiento de Eibar 2016 -2015.
<http://www.eibar.eus/es/cultura/euskera/el-euskera-en-eibar/ciudad-de-eibar-plan-estrategico-del-euskera-2016-2025>



**10. ERANSKINA II.
ATALEN TXOSTEN OSOAK ANEXO**

**Eibarko Hiriko
2017-2027
aldirako
Kirolaren Plan
Estrategikoa**

**Plan Estratégico
del Deporte de
la Ciudad de
Eibar para el
periodo 2017-
2027**

